



ARGIA


Generorik gabeko euskal dantzak aldarri

Oier Araolazari
elkarrizketa

30-33. orriak



2.682 | 2020 / 03 / 22 | 3,90 €



**COVID-19 gaitzak
Euskal Herria
kolpatu du**

10 | OSASUN KRISIA



**Ekonomia eraldatzailea
despopulazioari
aurre egiteko**

34 | UDALBILTZA



**Down sindromeduna
eta emakumea,
zapalkuntza bikoitza**

52 | MONTSERRAT VILARRASA

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

LARRUN #251
HILABETEKARI MONOGRAFIKOA



MILITANTZIA:
EREDUAK ETA ERRONKAK

ARGIA.EUS/LARRUN

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | HUMANITATEAREN
UNE GORENAK
- 07 | EZ HANKA EZ BURU
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN

AZALEKO ARGAZKIA:
IRANTZU PASTOR

Iritziak

- 21 | DAVID BOU
- 22 | MAIALEN BERASATEGI
- 23 | MIKEL IRIZAR
- 23 | UXUE APAOLAZA
- 24 | GOTZON BARANDIARAN

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 40 | BIZI BARATZEA
- 42 | ARGIA KOMUNITATEA
- 43 | DENBORAREN MAKINA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 50 | ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGÍ-KONTRA:
MONTERRAT VILARRASA
- 54 | BERANDUEGI



10 | EZ BAITA GRIPE ARRUNTA

Moon of Alabama blogetik itzuli dugu erreportajea. Bertan azaltzen ditu koronabirusaren ezaugarriak eta osasun sistema ez kolapsatzeko gobernuek hartu beharreko erabaki eraginkorrak.

Elkarriketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Zinemagintzaren bortxaketa kultura irauli du A. Haenel-ek

Jenofa Berhokoirigoin

16 | SAHATSA JAUREGI

“Artea, rotaxa eta autonomia”

Miren Artetxe Sarasola

25 | EKONOMIA | IPAR EUSKAL HERRIA

Enpresen engaiamendu berriak

Mikel Asurmendi

30 | KULTURA | OIER ARAOLAZA

“Mutil eta nesken dantzak bereiztea duela ehun urteko sorkuntza kontzeptuala da”

Mikel Garcia Idiakez

34 | EKONOMIA | HAUSPOTU PROGRAMA

Despopulazioari balazta, ekonomia eraldatzailearen bidez

Urko Apaolaza Avila

37 | KULTURA | LANDER MUÑAGORRI

“Diskurtso aldaketa sumatzen da euskaraz kantatzeko hautuaz”

Mikel A. Elustondo

37 | KULTURA | GEMA INTXAUSTI

“Ez diot beldurrik ezezagunari”

Jone Alaitz Uriarte

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea
Lehendakaria
Bego Zuza
Erredakzioa
Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Maria Ortega, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga
Diseinua
Maitane Gartzandia
Argazkilaria
Dani Blanco
Produktzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.
Administrazioa:
Jone Arzallus, Mari Karmen Loarte
Salmenta
Idoia Arregi, Karlos Olasolo, Olatz Korta
Idazkaritza
Aloña Sorraluze, Bego Zuza
Web garapena
Asier Iturralde
Informatika
Iametzta Interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonoa

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Xalbardin baita. 64122 Urruña
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
interaktiboa

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabandu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

BAKARRIK EDO

Etxeko espetxealdi honetan, makrolaborategi sozial eta ekonomikoaren erdian, politikari adituen aginduz, igandean etxeko atarira jaistea debekatuta dago eta astelehenean lantokira joatea ezinbestekoa da sardinen antzera jendez gainezka dagoen metroan. Askoren trastelekua komuneko paperaz nola. Txistea borobiltzeko gure egunerokoa osasun zerbitzuetako langile, teleoperadore, langile sozial, garbitzaile, banatzaile eta supermerkatuetako apal-hornitzaileen esku dago. Murrizketen eta prekarietatearen lehen lerrora zigortutakoengan, alegia. Tira, ez dezagun umorea galdu, baina ez gaitezen estralurtarrak izan. Bakarrik ezin delako, baina lagunekin bai.

📷 ALVARO MINGUITO 🗨️ AXIER LOPEZ







JEAN-RENÉ ETXEGARAI

“Ohiz kanpoko egoera batean gaude. Epidemia testuinguru batean –benetako pandemia bilakatu dena– nola imajinatu dezakegu herri batek demokratikoki bere botoa emango duela?”.

EH BAI

“Emaitzak, urteetan zehar, abertzaleek tokian toki egindako lanaren uztza dira”. Nahiz eta abertzale etiketarekin ez aurkeztu, abertzaleez osaturiko zerrenda ezkertiar eta ekologisten hautua egin dute abertzaleek. Zerrenda horien alde bozkatzeko deia luzatu zuen EH Baik.

DATUA

5.424

Horra hauteskundearen egunean Frantziako Estatuan koronabirusak kutsatutakoen kopurua. 127 hildako ere eragin zituen ordurako. Azkarki hedatuz doa epidemia, bezperan baino 900 kutsatu berri eta 36 hil gehiago eragine zituen. Nahiz eta ikastetxeak baita hainbat toki publiko (tabernak, jatetxeak,...) hesteko hautua plazaratu, hauteskundearen lehen itzulia mantentzeko erabakia hartu zuen Emmanuel Macronek.



Abstentzioa, ezezagun handia

 JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Ipar Euskal Herriko eta Frantziako Estatu herrietako hauteskundearen bihar-munean galderak nagusi dira: bigarren itzulia ezeztatzeko aukera handiak izanki, zer gertatuko da lehen itzuliko emaitzei dagokionez? Legeak dion gisara baliogabetuko dituzte? Zer gertatuko da lehen itzulitik hautatuak izan diren auzapezekin? Analisi hau irakurtzen duzunerako erantzun batzuk argituak izan behar lirateke. Koronabirusaren epidemiari begira Frantziako Estatuak daukan kudeaketa traketsaren isla ditugu 2020ko herrietako hauteskundeak. Hain zuzen, lehen itzulia mantendu izana geroz eta gehiagok arduragabekeriari eta amaturkeriari lotzen duten honetan, termino horiek bideratu daitezke koronabirusari aurre egiteko duen politikari. Haatik, garrantzi handiko beste galdera multzo bat dugu, erantzunik gabekoa gelditzen dena: zein bozkatzaile gordetzen da abstentzio tasa altu horren giblean? %55ekoa izan da Frantziako Estatuan, 2014koa baino anitzez handiagoa eta tendentzia bera ikusi dugu Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako herrietan ere. Adibide esanguratsu bat dugu Baiona: %61,2koa izan da abstentzio tasa eta botoen kontaktak burutzeko jendea eskas ukan zuten. Hauteskunde horiek koronabirusaren testuinguru arras berezian burutu dira eta Emmanuel Macronek errealtate hori kontuan ez hartzeko erabakia plazaratu bazuen ere, prebentzio neurri gisa, jende anitz geratu zen etxean martxoaren 15ean. Baina nor dira etxean geratutako horiek? Egun batzuk lehenago Macronek berak etxean geratzea eskatu zieten 70 urtez gorakoak

–eskaera horrek ez zuen balio hauteskundeetarako–, hots, soziologikoki eskuin bozkatzen dutenak, ala anitzagoa izan da abstentzionisten multzoa? Zer nolako emaitzak ukanen genituen testuinguru normal batean iragan balira? Abstentzionisten aurpegia misteriozua geldituko da.

Hala ere, Ipar Euskal Herriari dagokionez argi geratu den ondorio bat dugu ondokoa: ezkerreko alderdi historikoak erabat ahulduz direlarik –Alderdi Sozialistak azken urteetan eta Alderdi Komunistak 80ko eta 90eko hamarkadetatik geroztik–, abertzaleek ere osaturiko ezkerreko zerrendak dira eskuinaren parean benetako alternatiba eta aldaketa gisa ikusiak. Duela sei urte bezala emaitza onak lortu dituzte ezkerreko abertzaleek, herriko etxe berriak irabazirik (Biriatu, Donapaleu, Ortzaze...) ala bigarren itzulian auzapezaren aulkia ala gehiengorako tokia irabazteko aukerak emendatuz (Ziburua, Urruña, Hendaia...). Bi itzulien arteko elkarriketek bideratuko dituzte bigarren itzulirako estrategiak. %10aren ozka gainditu duten zerrendek dute bigarren itzulirako txartela lorturik –baita %5az gora gelditu direnek ere, horiek lotzen ahal direlako lehian dagoen beste bati–. Ezkerreko aliantzei dagokionez, abertzaleak indartsu dira negoziaketak egiteko orduan, emaitza onak dituztelako esku artean. Baina noski, hor ere galderek bideraturiko giro arraroa dugu nagusi: seguruena ezeztatuak eta hemendik hilabeteetara atzeratuak izanen diren hauteskundeak begira ez da intentsitate, presio eta lehia berarekin negoziatzen. Hots, alde guztietarik, ezjakintasuna dugu nagusi. ●

Mauleko Mixel Etxebest auzapezak behera egin du



ALLANDE ETXART

Zerrenda bakarrek herrietan hauteskunde lasaiak burutu dira: Ur-diñarbe, Muskildi, Garindaine, Gotaine, Sohüta, Santa Grazi, Barkoxe eta beste herri txipiagoak. Lehiaketa handiko hauteskundeak izan dira herri hauetan:

ATHARRATZE. Villeneuve auzapez ohiaren zerrenda osotuak Maite Pitrau zuen buru eta parekoan zen Dominique Hastoy. Honek lau kontseilari lortu ditu eta Maite Pitrauk hamaika.

BERROGAINE-LARÜNTZE. Thierry Perrot zen auzapeza eta bere zerrenda gehiengoan heldu da.

BILDOZE. Christian Berçaits auzapeza aurkeztu zen berriz eta bere zerrendako hiruk aski lortu dute hautatuak izateko, aldiz beste zerrendako lau ere egoera horretara heldu dira. Kontaketa

eztabaida gogorrean pasatu da eta lau oren iraun du. Beraz bigarren itzuliak erabakiko du gehiengo.

LARRAINE. bi zerrenda aurkeztu ziren zerrendabururik gabe. Jeando Iriart-ek du boz gehien bildu eta bere zerrendak du kudeatuko Herriko Etxea ondoko sei urteetan.

MONTORI. Roger Lapeyrade zen orain artinoko auzapeza eta gehiengo ez du lortu, zerrendaburu gabeko beste zerrendak du herria kudeatuko.

Jean-Michel Coscarat auzapezak aise berritu du auzapez kargua Baigorriko herriko etxean. Zerrenda bakarra zen.

MAULE. hiru zerrenda ziren emaitza hauekin: Louis Labadot (Union citoyenne) % 37,6; Mixel Etxebest (Agir ensemble) % 33,4; Beñat Elkegarai (Aitzina Maule) % 28,9. Duela sei urte hiru

zerrenda horiek lehian ziren gehi sozialistak (% 13 lehen itzulian) eta aldi honetan horien bozak banatu dira ezkerreko bi zerrendetan. Mixel Etxebestek bultzatu proiektu batzuek (Agerria hotel jatetxea eta Espartiñaren Etxea) eztabaida handiak sortu dituzte eta horrek esplika lezake Etxebesteren beherakada. Seguraski bigarren itzulian hiru zerrendak aurkeztuko dira 23 kontseilukideen lortzeko.

Maule eta beste herrietako datu ohargarri bat aipagarri da: biztanlegoaren %30ak ez du boto emateko eskubiderik (adin txikikoak izanik) eta beste %30ak ez du bozka emateko aukera erabiltzen. Ondorioz biztanleen erdiak baizik ez du hauteskundeetan parte hartzen. Adibidez Maulen 3.217 biztanle bada eta 1.635 boto baliagarri izan dira. ●

Aitzina Donapaleu zerrenda garaile



ARTZEN LETONA

Hiru zatitan dugu Baxenabarre, herri elkargoari dagokion lurraldeekiko. Amikuze dugu azpimarratuko, lurraldearen itxurak ere kolorez aldatzeko arriskua izan du.

Lurralde euskalduna izanki ere hauteskien gehiengoaren ukazio bat sendi zen Euskal Herriarekiko adibide garbia Euskal Elkargoaren sortzean, izandako jarrera ezezkorra.

Bozek hori erakusten dute Donapaleuko herriarekin. Jean-Jacques Lous-taudine-ren 25 urteko agintaldiari etetea lortu dutelakoz Aitzina Donapaleu zerrendakoek.

Ez da partida erraza izan Charles Massondok eramaten zuen zerrenda

eta abertzaleen arteko adostasunaren lortzea, baina 2014ko bozen hutsetatik ikasirik eta Barthelemy Aguerrenen apustuarekin parean indarrak ontsa batu dituzte. Emaitza hor da: %63,3a lortu dute.

Horrekin Amikuzeko lurraldearen kolorea ere aldatuko da bortxaz, sei ordezkarekin agertuko baitira.

Beste galdera da zer egingen duen Barthelemy Aguerrek, gaur egun Akitania Berriko kontseilaria da oposizioan ez dena izugarri prest berak dioten bezala oposizioan ezin delakoz deus egin. Bere sorterriko auzapez kargua utzirik eta Donapaleuko galdurik oposizioan egonen da? Amikuzeko lurraldean Do-

napaleuko oposizioak ere leku bat badu hor segituko du? Ondoko egunetan jakin beharko.

Garazi Baigorriko lurraldean Donibane Garaziko emaitzak ditugu azpimarratuko Laurent Inchauspe Donibane bizi dezagun zerrendakoa eta gaur egungo auzapezaren segida hartzen duelarik %55,2ko emaitzarekin, Xabi Larrek eramaten zuen Donibane erne zerrendaren parean %44,80ko emaitzarekin 2014an konparatuz %33,3a lortu zuten 40boz gehiago aldi honetan abertzalez osatutako listarentzat.

Oztibarre Iholdiko lurraldean ez da izan beste munduko aldaketarik, Larzabaleko auzapezaren porrotaz kanpo. ●

EKONOMIAREN TALAIAN

Koronabirusaren xantaia ekonomikoak



JUAN MARI ARREGI

Koronabirusaren munduko osasun-krisiak zeharkako ondorio ekonomiko eta finantzario oso garrantzitsuak eragin ditu, eta areagotu egingo dira, ziurgabetasuna handitu eta birusa desagerrarazteko neurri eraginkorrik aurkitzen ez den neurrian. Ekoizpena, kontsumoa, turismoa, aisialdia murriztea, burtsen beherakada handiak, desazelerazioa... dira ondorioetako batzuk.

Testuinguru horretan, jadanik ikusten ari gara mugimenduak enpresetan, politikaren arloan eta nazioartean, gobernuari xantaia egiteko, eta saihesteko langileei mesede egin eta hain interesei kalte egingo dieten neurri oro, izan sozialak nola laboralak. Espainiako Estatuan PPren jarrerarekin ikusten ari gara hori, baita Nazioarteko Diru Funtsarekin ere. Era berean, neurriak proposatzen ari dira gobernuak izan daitezen krisi honen ondorio ekonomiko eta enpresarialen erantzule. Espainiako Estatuan, igaro berri dugun krisi ekonomikoan 60.000 milioi euroekin erreskatatu zituzten bankuak, baina ez dute inoiz diru publiko hori itzuli.

Orain Kapitala berriro ari da Espainiako Gobernuaren politikak baldintzatu nahian. Egoera baliatu nahi dute, besteak beste, lan erreforma indargabatu ez dezan; pentsioen erreforma urardotzeko; aurreikusitako zerga berriak saihesteko -Tobin tasa edo operadore teknologiko handienei ezarriko zaiena, esaterako- edo sozietateen zerga bera ez handitzeko.

Gizarte mugimenduek, sindikatuek eta alderdiek oso adi egon beharko lukete, Kapitalak, beti bezala, martxan jarri baitu xantaiaren makina. Bankuen erreskate publikoarekin egindako gauza bera egin nahi dute koronabirusaren krisiarekin: beste erreskate publiko bat. Galerak sozializatzea eta haien milioi askoko etekinak pribatizatzea lekarke berriz ere. Kapitalismo gordinena. ●



BBVAREN AURKAKO PLATAFORMA

“ODOLEZ BUSTITA” DAUDEN IRABAZIAK

BILBO. BBVako Akziodunen Biltzarra batu dela probestuz, bankuaren jardun okerrak salatu ditu BBVaren Aurkako Plataformak. Banketxearen irabaziak odolez bustita daudela adierazi dute ekintzaileek, “haren onurak milaka gerratan eta gaztatan izandako minetik datozela, arrakala sozialean sakontzen dutela, klima aldaketan, ingurumen hondamendian”. Barnean, bankuko presidente Carlos Torres Vilak pozarren jakinarazi du iaz 4.830 milioi euroko irabaziak izan zituela.

INDARKERIA MATXISTA

104

emakume hil dituzte indarkeria matxistaz Euskal Herrian 2003tik 2020 hasierara. Hilabete honetan, baina, 54 urteko emaztea eta 24 urteko alaba hil ditu 60 urteko gizonak Abanton (Bizkaia), eta 33 urteko beste gizon batek 74 urteko bere ama hil du Sorluzen (Gipuzkoa). Hilketak matxista direla baieztatuz gero, **107** hildakora igoko da kontagailu lazgarria.



“ERRAUSKETA OZTOPO GARRANTZITSUA DA EKONOMIA ZIRKULARRARENTZAT”

JANEK VAHK, EUROPA ZERO ZABOR

Europar Batasunak jarrera finkatu du: errausketa bateraezina da klima-aldaketaren aurkako praktikarekin. Txosten teknikoan, errausketaren eragin kaltegarriak, blokeoak eta ingurumen eraginak nabarmendu ditu. Pozik hartu du erabakia Europa Zero Waste elkarteak: “Aurrekari handia da EBren etorkizuneko ekintza klimatikorako eta inbertsio jasagarrietarako. Errausketa ahalik eta azkarren baztertu behar dugu”. **2020/03/12**



HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Izurria



ARITZ GALARRAGA

Giza espeziea iraungitze bidean dagoenaren seinale garbia: koronabirusaren agerraldia dela eta, jendeak masiboki egin du komuneko paperaren pilaketa –eta puntu honetan, behar baino gutxiagotan erabili dudan esapide bat, zutabe hauen izpiritua bikainki harrapatuko lukeena: gertatzen zaigun guztia, eta gehiago, merezi dugu-. Era berean, giza espezieak salbaziorako esperantza txiki bat atxikitzen duenaren froga zailentzarik gabekoa: beste zelulosa klase bat, adimena garbitzekoa, erruz ugaritu da, koronabirusaren agerraldia dela eta: Albert Camus-en *La peste* eleberraren salmentak gora egin du nabarmenki, Frantzian, noski, baina baita Italian ere –Espainian *ya tal*–.

Egia esan, ez nau harritzen. Rieux, Tarrou, Paneloux eta gainerakoek eskutik ezagutuko baitugu Orango hiria jo zuen epidemiaren hasiera, garapena eta bukaera, zeina, desberdintasunak desberdintasun –izurria harrapatu zuena ia beti zihoan zulora–, ez den koronabirusaren agerralditik hain diferentea. Alegia, *spoiler*, Albert Camus-en *La peste* eleberria irakurtzen duenak jakingo duela nola joango den, nola bukatuko den hau guztia. Eta jakingo duela epidemia oro norberaren arazoa ere badela eta norberak bete beharko lukeela bere eginbeharra. Jakingo duela, halaber, guztiok daramagula izurria geure baitan, zeren ez baitago inor, inor mundu osoan, horretatik libre dagoenik –*Même ceux qui ne l'ont pas la portent dans leur cœur*–. Jakingo duela, azken buruan, funtsera itzuli beharra dagoela. Izurriaren eta bizitzaren jokoan gizakiak irabaz dezakeen gauza bakarra eza-gupena eta oroitzapena baita.

Gabriel Ferrater poetak esango lukeen bezala, ni ere ez naizenez Saint-Germaineko orandar bat, ez zait iruditzen beldurra gai handia denik literatura edo filosofiarako. Hori bai, gizaki askok izan dute beldurra, eta horiez hitz egin beharra dago. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



LAN HERIOTZA. Zorroza enpresan teila-tutik erorita hil zen langilea, oraindik bizirik zela lekuz mugitzeko agindu zuen gerenteak, LABek salatu duenez. Hainbat langile behartu zituen hildako langilea istripuaren lekutik bere ohiko lanpostura mugitzera.



USTELKERIA. Felipe VI.ak aitaren herentziari uko egin dio, Saudi Arabiako ordainketen eskandalua eta gero. Horrez gain, erregeak Juan Carlos I.a (bere aita eta monarka emeritu dena) Estatuko Aurrekontu Orokorretatik monarka emeritu izateagatik jasotzen duen diru zatirik gabe utziko du.



EAE-KO HAUTESKUNDEAK. Urkullu lehen-dakariak gainontzeko alderdi politikoekin egindako bileran adostu dute apirilaren 5erako deituta zeuden Gasteizko Legebiltzarreko hauteskundeak atzeratzea. Apirilaren 5era aurreratu zituen Urkulluk, Zaldibarko krisiaren lehen egunetan.

Koronabirusa benetan al da gripea baino arriskutsuagoa?

Birus pandemia izan da merkatuen desazelerazioa eragin duena. Baina zerk egiten du Sars-CoV-2 birusa –horrela deitzen baita ofizialki koronabirus berria– hain arriskutsu? Birusak eragiten duen Covid-19 gaixotasuna, funtsean, gripe bat da, hori bai: mota larrienetakoa dirudienez. Baina gripe erabat berria da eta hori da erabat ezberdintzen duena.

 MOON OF ALABAMA

2020ko martxoaren 9an finantza merkatuek azkenean aitortu dute Koronabirus berriak eragingo duen kalte ekonomikoa.

Errusiak petrolio merkatuetan hasitako prezioen gerrak ez du eragin gaurko balio burtsaren erorketa, baina ezta lagundu ere. Petrolio merkea ekonomia-erentzat ona dela suposatzen den arren, erorketak AEBetako finantza merkatuetan ere kalte nabarmenak eragingo ditu; Ameriketako Estatu Batuetako fracking industria osoa oso zorpetuta baitago eta orain desagertzera bideratuta dago. Petrolio gordinaren prezioa upeleko 20 dollarrera jaitea espero da, bat datozelako gainproduktzioa eta birusak eragindako eskariaren beherakada. Errusia ondo kokatuta dago prezioen gerra hau irabazteko. Beste batzuk ez.

Birus pandemia izan da burtsa merkatuen desazelerazioa eragin duena. Baina zerk egiten du Sars-CoV-2 birusa –horrela deitzen baita ofizialki koronabirus berria– hain arriskutsu? Birusak

eragiten duen Covid-19 gaixotasuna, funtsean, gripe bat da, hori bai: mota larrienetako batekoa dirudienez. Baina gripe erabat berria da eta hori da erabat ezberdintzen duena.

Urtero, munduko populazioaren %15 inguru kutsatuko da ezagutzen ditugun gripearen dozenaka birusetako batekin edo gehiagorekin. Jendea gaixotu egiten da, eta gehienak sendatu egiten dira aldi berean birus espezifiko horren aurkako immunitatea garatuz. Irten poderioz, hori gehituko zaio gure gizartearen oinarritzko immunitate multzoari. Hainbeste jendeak eduki du dagoeneko gripea ondo ezagutzen ditugun eraginez, ezen horietako gehienak ez baitira kutsatuko hurrengo gripe denboraldian. Txertoak ere garatu ditugu birus ezagunen aurka. Horri esker osasun zerbitzuetan lanean ari diren pertsonak jarraitu dezakete lanean gripeak jotako paziente berri asko ospitaleratzen diren garaietan ere.

Baina birus berri bat garatzen denean, orduan dena da ezberdina. Gure

gizarteek ez daukate birus berriaren aurkako oinarritzko immunitaterik. Kontrako neurririk ez jartzekotan, gripe denboraldi arrunt batean baino askoz pertsona gehiago gaixotuko dira birus-eraso berriaren lehen, bigarren eta hirugarren olatuetan. Osasun zerbitzuetako langileak ere kutsatu eta berrogeialdian jarri beharko dira. Osasungintzako langile batzuk hil litezke. Ospitaleak gainezka egongo dira, eta osasun sistema osoa erori daiteke gainbehera, Txinako Wuhan hirian gertatu den bezala. Osasun sistemaren kolapsoak eragingo du birusengatiko heriotzak askoz gehiago izatea martxan dagoen osasun sistema batekin leudekenak baino.

Hona nola deskribatu duen horrelako egoera bat Italiako Bergamon ari den zurrut batek:

Kasuak biderkatu egin dira, egunean 15-20 ospitalizazio izateraino, denak arrazoi beragatik. Testen emaitzek bata bestearen atzetik diote: positiboa, positiboa, positiboa. Bat-batean, larrialdi gela



gainez egiten hasi da. Larrialdietarako protokoloa abiatu da: larrialdietarako gelan laguntza behar da. Bilera azkar bat egin larrialdi gelako EHR [historia kliniko informatizatua] nola erabili ikasteko eta minutu gutxiren buruan jada behean nago, gerrako frontean ari diren guda-rien ondoan. PCaren pantailak beti kexa berdinak salatzen ditu: sukarra eta arnasa hartzeko zailtasuna, sukarra eta ez- tula, arnasarik hartu ezina, etab. Azterke- tan erradiologiak beti perpaus bera dio: aldebiko pneumonia interstiziala. Denek behar dute ospitaleratzea. Batzuk intu- batzea behar dute eta ZIUra [Zaintza In- tentsiboetako Unitatera] eramatea. Beste batzuentzat, ordea, berandu da. ZIUa be- teta dago, eta ZIUak beteta daudenean, gehiago sortu behar dira. Haizagailu ba- koitza urrezkoa bihurtu da: premiazkoak ez diren kirurgiak bertan behera utzi dituzten kirofanoetakoak erabiliko dira gela arruntak ZIU bihurtzeko”.

Lonbadian koronabirusagatikoko hil- kortasun tasa %6raino iritsi da. Txinako

Herrialde guztiek ahal dituzten pertsona guztiak testeatu behar dituzte kasu positiboak isolatzeko

Hubei probintzian ikusita dakigu nola ongi dabilen osasun sistema batean Covid-19 duten gaixoen heriotza tasa %1 baino txikiagoa dela. Italian pertsona gehiago hiltzea ez da birusagatik, gainez egindako osasun sistemagatik da.

Gerta liteke, gainera, Covid-19 kasue- kin gainez egin duen osasun sistema ezin iritsi izatea gaixotasun kasu arruntez ar- duratzera. Bihotzeko atake akutua duten pertsonak, diabetes arazoak dituztenak edo bizikleta batetik erori diren haurrak

eramango dituzte artatu ezin dituzten ospitale bete batzuetara.

Hain egoera katastrofikoa prebeni- tzeko modu bakarra da ezagutaraztea zein den epidemiaren denbora-lerroa. Lortu dezakegu baldin eta gaixotasu- naren ugalketa-kopurua murrizten ba- dugu. Egoera normaletan, gaixo dagoen pertsona batek osasuntsu dauden bi, hiru edo askoz gehiago kutsatuko ditu. Kopuru horiek murriztu ditzakegu jende elkarretaratze handiak debekatuz, ku- tsatutako pertsonak isolatuz eta higiene ona erabiliz.

Positibo ematen duten edo sintomak dituzten pertsonak berrogeialdian jarri behar dira. Guztiek ezagutu behar dituz- te arriskuak eta horiek saihesten ikasi. Eskuak garbitzeak laguntzen du, xaboiak erraz suntsitzen baitu birusaren azala osatzen duen lipido koipetsuko geruza.

Txinak Wuhanen hartu zituen kontrol neurriak ugalketa zenbakiak murrizteko pentsatuta zeuden. Wuhanen gaixotasu- naren ugaritze efektiboa 3.86tik 0.32ra

EUSKAL GIZARTEA ERAKUNDEEN AURRETIK

Martxoaren 11n itxi zituzten Arabako ikastetxeak, 13an Hego Euskal Herri osokoak eta 16an Ipar Euskal Herrikoak. Hala ere, erakundeen erabakien aurretik, Euskal Herriko enpresa ugari langileek etxeetatik lan egiteko neurriak hartu zituzten. Ostira-lean, taberna eta sagardotegi ugari, beren erabakiz itxi zituzten ateak, erakundeen aginduak iritsi aurretik. Astelehenean, langile ugari joan da beharrera, eta segurtasun neurriak betetzen ez zirela ikusita, beraiek gerarazi dute produkzioa, adibidez, Gasteizko Mercedesen.

ETXEGABEAK BABESTEKO NEURRIAK ESKATU DITUZTE

Egoera berri honetan, kalean bizi direnak babesteko neurriak ez da hartu; are gehiago, zituzten baliabideak murriztu egin dira, euren egoera okertuz. Hala salatu du Donostiako Herriarren Harrera Sareak eta neurri zehatzak eskatu ditu.

TXINAN ADINA KUTSATU ETA HERIOTZA DAGOENKO TXINATIK KANPO

Martxoaren 16an 170.000 dira gaizak mundu osoan kutsatuak; horietatik 6.500 baino gehiago hilak. Txinan gertatu dira horien erdiak baina hedatze azkar baten poderioz munduan gaur egun badaude Txinan adina gaixotu eta hildakoak ere proportzio berean erdi eta erdi. Gaixotasuna pasa eta sendatutakoak 77.000 dira, horietatik 67.000 Txinan.

jaitsi zen neurri horien ondoren. Txinak hartutako neurrietako batzuk zorrotzak izan ziren, baina funtzionatu zuten. Hego Koreak ere erakutsi du nola ekintza azkar eta erabakigarri batek lortu dezakeen arazoa zenbaki kontrolagarrietan mantentzea.

Birusa gure gizarteetatik bi edo hiru uhin arinetan igarotzen bada, gure komunitateek oinarritzko immunitate maila bat garatuko du. Urte batean edo bitan haren aurkako txertoa ere eduki dezakegu. Orduan birusa nahiko arrisku gabea bihurtuko da, aurretik ezagutzen ditugunak bezalakoa.

Horren adibide da 1968ko Hong Kongeko gripea. Orduan H3H2 birus berriak Hong Kongeko 500.000 biztanle kutsatu zituen. 1968 eta 1969an milioi bat pertsona baino gehiago hil zituen mundu osoan, hilkortasun tasa %0,5 baino txikiagoa eduki arren. Gaur egun gure populazioak birus harekiko immuneak dira neurri handi batean eta H3H2 txertoa gaurko gripearen aurkako txerto-koktelaren parte da.

Birus honetatik ere ez da herrialde bakar bat libratuko eta antzeko eragina edukiko du edonon.

Orain lortu behar dena da grafikoko kurbak jaitsi araztea, Covid-19 bidezko infekzio kopuruak murriztea, gure osasun sistemak izurriteari aurre egin ahal izan diezaion.

AEBetan oraindik Sars-CoV-2 izurritea astebetean pasako den arazo moduan hartzen da. Arrazoia da presidentek eta AEBetako biztanleen zati handi batek oraindik ez dutela arazoa ulertu.

“Beraz, iaz 37,000 estatubatuar hil ziren gripe arruntaren ondorioz. Urtero 27,000 eta 70,000 arteko kopuruak izaten dira. Ezer ez da ixten, bizitzak eta ekonomiak bere horretan jarraitzen dute. Une honetan berretsita daude 546 CoronaVirus kasu eta 22 heriotzarekin. Pentsa ezazue horretan!”, adierazi zuen Trump Twitterren.

Baina hau ez da gripe arrunta. Hau gripe berria da. Honen kontra gure oinarritzko immunitatea zero da. Kontrako neurriak gabe, kasu kopuruak izugarri ugartuko dira eta horien artean asko izango dira larriak. Osasun sistemak gainez egingo du eta orduan dena izango da diferentea.

Herrialde guztiek ahal dituzten pertsona guztiak testean behar dituzte kasu positiboak isolatzeko. Positibo ematen duten baina sintomarik agertzen ez du-

ten pertsonak ez dira beren familietara bidali behar. Txinak ikasi du hori egiteak kasu multzo berriak sortzeko besterik ez duela balio, familiako kide guztiak gaixotzera eragingo duelako. Sintomak garatzen dituztenak banan-banan isolatu behar dira, zaintza zerbitzuak bermatuta. Konplikazio larriak garatuko dituzten %20 horiek bakarrik eraman behar dira horretarako prestatutako ospitaleetara.

Herriarrek beren
fakturak ordaintzeko
aukera eduki
behar dute, baita
berrogeialdian
jarritakoek ere

Herriarrek beren fakturak ordaintzeko aukera eduki behar dute, baita berrogeialdian jarritakoek ere. Hori lortzeko modurik errazena da gaixotasunagatiko lanuztea nahitaez ordaindu beharra ezartzea legez. Paperik gabeko etorkinek frogak eta arreta medikua bilatzeko aukera izan behar dute, deportatuak izateko beldurrik gabe. Horrek aldaketa bat eskatzen du egungo nahitaezko jakinarazpenen eskeman.

Pandemiak eragingo duen depresioaren ondoren ekonomia berrabiatzeko neurri ekonomiko gehiago hartu behar dira. Emaitzarik onenak ekarriko dituzte gastu publiko programa zabal eta askotariko batek. Aldiz, aberatsentzako zerga salbuespenek ez dute balioko. ●

Moon of Alabama bloga, Billmon sinatzen duen batek argitaratua, munduan erreferentzia nagusietakoa da geopolitikaren eta oro har nazioarteko gai nagusien jarraipenean. Covid-19 koronabirusaren jarraipena ere hasieratik egiten ari da, berme handiko iturriak erabiliz beti. ARGIA euskaratu dugun sarrera hau martxoaren 9an argitaratu du, astelehenean, honako tituluz: "Is The Coronavirus Really More Dangerous Than The Flu?".

Birusa eta gizarte kapitalista



OSCAR GARCÍA JURADO

EKONOMIAN DOKTOREA ETA KOOPERATIBISTA

Bat: Koronabirusa etorkizunean sortuko diren patogeno are hilgarriagoetako bat da. Badirudi jatorria animalien birusa gizakiei transmititzean dagoela; enpresek etekinak bilatzen dituzte industria-nekazaritza intentsiboaren bidez, eta horrela, animalia basati exotikoen haragi-merkatuak zabaltzen dira.

Bi: Ez gaitezen engaina, birusak eragindako gaixotasun eta heriotzak ez dira kezkatzekoak Kapitalaren estrategiaz; goseak eta saihestu daitezkeen gaixotasunek urtero eragindako milaka heriotzak ez diren bezalaxe. M. Roberts berak ere entzun du argudioa "kapital finantzarioaren suite exekuti-boetan: pertsona zahar eta inproduktibo asko hiltzen bada, horrek produktibitatea handitu lezake... gazteak eta produktiboak direnak gehiago biziko direlako!". Logika kapitalista bete-betean. Pentsioen "iraunkortasunerako", besteak beste oso positiboa izan liteke adineko pertsonen gutxiago irautea. Kezka burtsako merkatuei, irabaziei eta ekonomia kapitalistari egin dakiekeen kalte potentzialean zentratzen da; epidemia hori atzeraldi edo depresio handi baten eragilea izan ote litekeen, lehenengo 2008-2009 urteetako Atzeraldi Handiaz geroztik.

Hiru: Birusen izurritean naturak zerikusia izan dezaken arren, heriotza kopurua giza ekintzaren arabera da:



ekonomiaren egitura soziala; azpiegituren eta medikuntzako baliabideen maita; eta gobernuen politikak. Horregatik, Estatuak zerbitzu publikorik kasik ematen ez duen ekonomietan erabateko deskontrolaren beldur dira, hala nola AEBetan -gastu publiko handia dago, baina alor militarrean-.

Lau: Arazo honen konponbideak auzitan jartzen du ekonomia eta gizarte kapitalistaren dogma ukazina: lehiakortasunaren ontasuna eta etekin ekonomikoaren bilaketa. Dean Bakerrek horrela adierazi du: "Mundu osoko jen-

dea txertoa ahalik eta azkarren garatzeko lanean ari da. Albiste txarra da denak elkarrekin kolaboratzen aritu beharrean, elkarren artean lehiari direla".

Bost: Egungo osasun krisia une aproposa da ekonomia kapitalistari erasoe-giteko: aurre egiteko merkatuaren dogmari; soilik soldatapeko gisa ulertzen den lanari; lehiakortasuna, truke balioa, jabetza pribatua eta irabaziak helburu dituen horri. Baina gertatzen da lehen ere inokulatu zela birus hilgarri eta erreakzionario bat: birus kapitalistaren aurkako jarrera akritikoa. ●

Oharra

ARGIAk argi du koronabirusaren pandemiak eragindako krisiak ezohiko garrantzia daukala. Informazioa, inoiz baino gehiago, behar-beharrezko elementua dugu, eta hedabide honek herritarren alboan egon nahi du funtzio

publikoa betez. Horregatik, gaiari gertuko jarraipena egiten ari garela jakinarazi nahi dugu, bai Interneten, baita datozen asteetako aldizkarietan ere. Denon artean, hemendik ere aterako gara.

FRANTZIAKO ZINEMAGINTZA ETA BERE BORTXAKETAREN KULTURA IRAULTZEN DABIL ADÈLE HAENEL

lazko azaroan eman zuen Adèle Haenel aktoreak hamazazpi urte lehenago Christophe Ruggia errealizadorean partetik errepikaturiko eraso sexisten berri. Kasu pertsonalaz haratago, bortxaketaren kultura xeheki disekatu zuen, Frantziako zinemagintza zein jendarteazkarki inarrosiz. Otsailaren 28an, bigarren lurrikara eragin du, berriz ere gaia plazaren erdira eramanez: errealizadore hoberenaren Cesar saria Roman Polanskiri ematen zitzaioala jakitean, “lotsa!” oihukatu eta sarien banaketa gelatik atera zen.

JENOFA BERTHOKOIRIGGIN

Ukiezina dirudien Frantziako zinemagintzaren mundua inarrostean dabil 31 urteko Adèle Haenel aktore frantsesa. Heteropatriarkatua eta bere bortxaketa kulturari gerra deklaratu dio eta geldiezina daukagu, ezerk ez duelako izutzen. Azken ostikoa Cesar sarien banaketaren baitan eman zuen, otsailaren 28an, errealizadore hoberenaren prezioa *J'accuse* filmaren egile den Roman Polanskiri ematen zela jakin zenean: zutitu eta “Lotsa! Lotsa!” oihukatuz alde egin zuen gelatik. Orduraz geroztik, zinemagintzako bata eta bestea, guztiak dabilza Haenelen erreazioari dagokionez posizionatzen, *in fine* bortxaketa kulturaren arazoa azaleratzen. Ostikoak min egin duen seinale. Bortxaketak leporatzen dizkiete hamabi emakumek Polanskiri, baina epaitu behar lukeen AEBetako Justiziatik urrun lasai darama bizia Frantzia, Suitzako Justiziak estradizio eskaera 2010ean errefusaturik –are gehiago, 2017an errealizadorearen kontrako bortxaketa salaketei segidarik ez ematea erabaki zuen Suitzako Justiziak–.

Inarrosaldia liseritzeko eguna hartu eta iritzi artikulua publikatu zuen Virginie Despentes idazleak: “Adèle zutitu eta lekutzen da. Otsailaren 28ko arrats horretan ez dugu gauza handirik ikasi frantses zinemaren industria ederraz; haatik, ikasi dugu nola janzten den gaueko soinekoa: gerrari moduan. Takoi-luzeekin nola ibiltzen garen: eraikin guztia suntsituko bagenu bezala. Nola aitzinatzten garen: bizkarra zut, lepo-gibela haserreagatik gogortuta eta sorbaldak za-

bal-zabal. 45 urteetako zeremonietako irudirik ederrena: Adèle Haenel eskailerak jaisten ari eraikinetik ateratzeko, txalotzen zaituztela. Bai, orain badakigu nolakoa den lekuak husten eta “joan pikutara!” erraten dizuna”. Polanski saritzea “biktima guztien aurpegira tu egitea” litzatekeela azaldu zion *New York Times*-i, sariketa aitzinetako egunetan egindako elkarrizketa batean.

Haenel bera dugu erasoak jasandakoen artean, hor ere filma errealizadore bat izaki erasotzailea: Christophe Ruggia egile ezkertiar frantsesa, artistak 12 eta 15 urte artean zituela behin eta berriaz eraso egin ziona. Isiltasuna hautsi eta pairatutakoa publikoki salatu zuen iazko azaroaren 4ean *Mediapart* komunikabide independenteari eskainitako ordu bateko elkarrizketan. Ondoan zuen Marine Turchi kazetaria, zazpi hilabetez kasu horri buruzko ikerketa eramaten aritutakoa –hainbat froga eskuratu zituen eta 30 testigantza bildu, Ruggiarena ere eskatu zuen baina ezetza jaso zuen–.

ZINEMAZ GAIN, JENDARTEA IRAULI

Begirada eta bisaia krispaturik, hamazazpi urtez isilik gordetakoa kanporatzeak dakarren itolarria begibistakoa du elkarrizketa osoan zehar. Baina indartsu eta ahalbunduta ageri da, Despentesen hitzak lapurtuz, *bizkarra zut, lepo-gibela haserreagatik gogortuta eta sorbaldak zabal-zabal*. –Gerrari–. “Hamazazpi urte pasa dira, mundua ere aldatu da eta horrentzat naiz orain mintzo. Behar dut mintzatu,

#MeToo-ren baitan mintzatu diren emakume guztientzako, haiei esker zaidalako perspektiba aldatu. Zerbait ekarri nahi nuke nik ere, espazio publikora eraman nahi dut hitza, hitzaz gain emakumeon bizitzaz ari garelako”. Bere egoera sozioekonomikoaz kontziente, –“dudan erosotasun materiala, lanaren segurtasuna eta estatus soziala”– duen arduraz jabeturik dela dio: “Ez naiz biktimen gehiengoa dagoen prekaritatean, haiei zuzentzen naiz hitza hartuz: ez zaudete bakarrik”.

Bortxaketa kulturaren hamaika aurpegien eta elkarren arteko loturen disekzioa; “borreroak bideratu alienazioa”; biktima isiltasunean sarrarazten duen mekanismoa eta hitza askatzera heldu arteko prozesua; justizia patriarkalaren errealitatea eta justizia feministaren aldarria; kulturaren bidez bideratu iruditegi sexista eta bortitza, eta abar, lekukotasun pertsonal bat baino askoz gehiago da Haenelen testingantza.

Gaia plazaren erdian egonaztea ahalbide duen elkarrizketa 750.000 aldiz begiratua izan da. Salaketa ez jartzeko hautuak ere zer-errana sortu zuen, Nicole Belloubet Frantziako Justizia Ministroa, Christophe Castaner Barne Ministroa eta Marlène Chiappa Berdintasunaren Estatu Idazkaria posizionatu arteraino. Horra hor elkarrizketan emandako arrazoia: “Ez dut inoiz Justiziarengana jotzeko asmorik ukan, emakumeengan bideraturiko bortizkeria sistemikoa dugulako justizia sistemaren baitan. Justizian sinesten dut baina jendarte osoari erantzun behar dio-



2020KO CESAR SARI BANAKETAK.

ERREALIZADORE HOBERENAREN
SARIA POLANSKIRI EMATEN ZELA
JAKIN ZENEAN "LOTS! LOTS!"
OIHUKATU ETA GELATIK ATERA
ZEN ADÈLE HAENEL AKTOREA.

nean! Ikusten dugunean emakumeok zein heinetaraino mespretxatzen gaituen: hamar bortxaketatik bakarra da zigortua! Baina beste bederatzia zer?! Beste bizi guzti horiek zer? Bere burua zalantzan jarri behar du Justiziak; egin dezakeela sinesten dut, baina absolutuki egin behar du. Zenbat emakume xehatzen ditu Justiziak? Demagun, salaketa hartzeko unean begirada emakumean jartzen denean, bera delako hobenduna: Nola jantzia da? Zer edan du? Zer egin du? Zer erran du? Nahikoa da!". Azkenean, ideiaz aldatu eta auzitegira jotzeko erabakiaren berri eman zuten artistaren abokatuek, agiri bidez. Bizipen pertsonala politiko eta sistemiko kokatu duen gisara, Frantziako zinemagintzaren ispilu gisa kokatu du bere kasa. Zinemaren munduak Polanski saritu izanak bortxaketa kulturari buruz dagoen omertà eta onarpena islatzen du. Bortxa-


tzailearen sariketa-eza zentsurarekin alderatzen duenari ondokoa erantzuten dio Haenelek: «Ikusezinkeria da Frantziako zineman dugun benetako zentsura. Oraingoz, kontaketa gehienak ikuspegi androzentriko, xuri eta heterosexualean oinarriturikoak ditugu».

EMAKUMEZKOEN BEGIRADAREN BEHARRA

Azkenean, ikuspegi kontua da: zein begiradetatik ekoiztuak diren filmeak. Laura Mulveyk *Visual Pleasure and Narrative Cinema* liburuan aipatzen duen *male gaze* edo "gizonezkoen begirada"-n dago zinemagintza -Frantziakoa baina orokorki, mundu guzti-koa-: "Ikuslearen begirada kamararen begiradarekin identifikatzen da eta kamara bera pertsonai nagusiaren bitartekaria da, azken hau beti delarik emakumea objektu gisa kokatuz plazera hartzen duen gizonez-

koa", Iris Brey unibertsitariaren definizioari segi. Filmetan emakumerik ez egoteak ala daudenean hitzik gabe izateak edota gehiegizkoan sexualizaturik izateak ere dira bortxaketa kulturaren osagai.

Aterabide gisa, *Female gaze* edo emakumezkoen begirada aldarrikatzen du: paradigma eta iruditegi aldaketa, "inkontziente patriarkaletik kontzientzia feminista baterako saltoa", hots, plazer hartzea baina emakume gorputzaren objektibizaziorik gabekoa. *Male gaze* horren froga dugu Polanski saritu izana. Baina gauzaldiaz geldituko den irudia Haenelena, -"emakume gorputza mugimenduan"- dela dio Breyk: "Mundua aldatzen duten kontakizun berriak sortzen dabiltza gorputz horiek. Maleruski, Polanski sarituz, Haenelen kontakizuna ikusezin bilakarazten saiatzen dira. Ez dugu ahanzi behar kontakizunen arteko guduka batean garela". ●



ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 - 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

Sahatsa Jauregi

ESKUEKIN HITZ EGITEN DU, ETA BEGIEKIN ENTZUN



ARTEA, ROTAFLEXA ETA AUTONOMIA



Artea ez da hizkuntzaren sintaxira makurtzen. Lengoia propioa du. Eta Sahatsa Jauregi itzulpen lanetan aritu da, elkarrizketak iraun duen bitartean, beste hizkuntza batean sortutakoa hitzetara ekartzeko ahaleaginean, eskuzabal.



MIREN ARTETXE SARASOLA



DANI BLANCO

Zergatik ikasi zenituen Arte Ederrak?

Nik txikitatik ikusi izan ditut etxean nire gurasoak eskulanetan eta artisautza lanean, eta ordutik eduki dut fijazio moduko bat. Eskolan beti bilatzen nituen aitzakiak eskulanetarako. Matematikako lanetan, irakasleari lana egun jakin batean eman behar bazitzaion, nik eta beste lagun batek aurreko egunean bukatzen genuen, eta egun bat hartzen genuen lanari marrazkiak egiteko eta apaintzeko. Eta ikasketak aukeratzeko garaian banekien hori zela gustatzen zitzaidana.

Irakurri dizut Arte Ederretako fakultatean eskultura zela garai hartan pisu gehien zuen adarra, baina zuri ez zitzaizula orduan asko interesatu.

Bai hori egia da. Bilboko fakultatean

bazen irakasle bat –Angel Bados– eskultura eman izan duena urte askoan eta sekulako eskola sortu zuena. Oteiza, Txillida, Txomin Badiola... eskulturak euskal artean duen garrantzia atzeragotik dator. Baina, justu garai horretan niri iruditzen zitzaidan lengoaia bat oso hurbilgaitza. Eskulturaren purutasun bat bilatzen zen, estrukturarena, formarena. Gainera, oso asoziatua zegoen teknikoki ona izatearekin, lan-tresnak ongi menderatzearekin eta guzti horrekin. Eta ez zitzaidan oso sexya iruditzen, egia esan.

Eta gero, hara non, eskulturak egiten bukatu duzun.

Ba, bai. Baina, eskulturara iritsi nintzen argazkien bitartez. Hasi nintzen artixibo baten antzeko zerbait egiten, intere-

satzen zitzaizkidan gauzak biltzen. Eta badago ideia bat hasiera hartan eskulturara eraman ninduen eta oraindik eramaten nauena, eta da pentsatzea eskultura egitea dela zu inguratzen zaituen hori ulertzeko modu bat. Modu bat zeu zeharkatzen zaituena eta zerikusia daukana zuk subjektu gisa inguruko objektuekin daukazu harremanarekin. Horregatik hasi nintzen eskapateetan arreta jartzen, jendeak kontzientzia artistikorik gabe eginiko ariketa sensible horietan, objektu konposaketetan... Berreziki erakarri nau beti kitsch-arekin eta esajerazioarekin lotuta dagoenak. Gustu onetik kanpo dauden forma horiei argazkiak ateratzen hasi nintzen, eta horrela izan zen eskulturarako hurbilketa, argazkietan gordetzen nuen hori neureganatzeko saiakera bat bezala.



Sahatsa Jauregi Azkarate

ITAPARICA, BRASIL, 1984



Sahatsa Jauregi artista da –esan dezagun geuk–, eta eskultura lan-tzen du. Hainbat sari irabazi ditu eta haien artean, 2019ko Gure Artea saria. San Frantzisko auzoan dagoen Okela Sormen Laborategian ere egiten du lan eta auzo bereko bere estudioan hartu gaitu. Horma inguruetan erremintak, argazki-bildumak eta bildutako objektuak –bitxiak, portzelanazko pailazoak, aizkorak–, eta erdian lanerako espazioa. Bertara ekartzen ditu kalean ateratako argazkiak, eta bildutako materialak, eta bertan eraikitzen ditu eskulturak. Gehienetan erakusketa egunak definitzen omen du piezaren behin betiko egitura. Bestela segi eta segi egingo omen luke. Behin eskulturak erakutsitakoan, argazkia atera eta tuper handi batean gordetzen ditu. Baita bere begien eta eskuen memorian ere.

Eta zeri ateratzen dizkiozu argazkiak? Zer jasotzen duzu zure bildumetan?

Badauzkat nahiko konstanteak diren erakarpenak, baita unean uneko obsesioak ere. Eskultura egiten hasi nintzeanean bazegoen erabat harrapatzen ninduen forma bat, adibidez –begira zein forma absurdoa– hutsune ahur bat eta esfera bat elkartzean sortzen zena, jo garaikur edo kopa bat, gainean baloi bat duena. Hasieratik begiz jota daukadan beste zerbait *bigarren mailako* edo *txarrak* diren eskulturak dira. Biribilgunee-takoak, mendi tontorretakoak edo bebarruetakoak. Badute zerbait ortodoxiatik urruntzen dituen eta berreskuratzea interesatzen zaidana. Baina, adibidez, berriki begia burdin-hesietara joaten zait, ataketako edo ate kanpoetako burdinazko forma horietara. Eta orain hori artxiboan integratzen hasi naiz.

Eta behin bilduma osatutakoan, nola eramaten duzu hori eskulturara? Zein da zure lan egiteko modua?

Badago halako hartu eman bat artxiboko argazkien eta eskulturen artean. Bi prozesu paralelo dira. Alde batetik ni kalean nabilenean –badaukat halako defekto profesional bat–, beti nago adi. Zu ari zara hitz egiten eta ni entzuten ari naiz, baina begira nago balkoi horretan dagoenari. Detektibe lan hori gustatzen zait, dibertigarria zait horrela bizitzea. Eta bestetik, argazkietako forma edo elementuekin lotura duten materialak biltzen ditut, eta material horien espezifikotasunei atendituz eskulturan egiten dut lan.

Esan daiteke argazkietan bildutakoak gero estudioan lanean ari naizenean egin nahi duan hori seinatzen duela. Bi bide dira, paraleloan doazenak, baina, nire burua etengabe konexioak sortzen aritzen da bataren eta bestearen artean eta orduan bi esperientzia horiek gurutatu egiten dira.

Eta sortzen dituzun eskulturak neurri txikikoak izan ohi dira, bildutako materialez eraikiak, baina atalak elkarri itsatsi edo iltzatu gabe, ezta?

Bai. Auto-inposatutako legeak dira horiek. Bai nik eta bai ezagutzen ditudan

artista askok geure buruari arauak jar-tzen dizkiogu, artearen aukera infinitoen artean esparru bat zedarritzeko, nolabait. Ez dakit beste diziplinetan nola den, baina, idazkerak besterik ez bada gramatika bati atenditu behar dio, baina arteak zeri? Denari eta ezeri ez? Orduan, norberak jarri behar dizkio mugak bere buruari. Eta nireek zerikusia daukate eskultura egiten hasi nintzenean neukan trebetasun tekniko eskasarekin. Ez nintzenez abila teknikan, asmatu nuen modu bat gauzak altxa ahal izateko, arkitectura bat jasotzeko, nahiz eta sinplea izan. Eta zortez eskultura horrela egitea oso entrenamendu ona izan da. Ez nitue-nez atalak beraien artean inoiz iltzatzen, oso ekintza azkarrak egin nitzakeen sorkuntza prozesuan, hau gehitu, hau kendu, hau aldatu... Saiakera-akats ariketa bizi horiek eskatzen dizute adimena oso adi edukitzea, ea noiz, mugimendu horietako zeinetan, somatzen duzun zer edo zer esateko modukoa: “Ados, hau horrelaxe utziko dut”. Eta estiloa hori bera



Nik ez dakit zein den subertsibo izateko estrategia, baina badaukit zein ez den: instituzioari berari buruz hitz egitea nahiz eta kritikarako izan”

da, arazo bati erantzuten dion teknika zehatza bilatzea. Baina egia da denbora aurrera joan ahala beste helburu batzuk ditudala eta orain badaukadala helburua gauza egonkorragoak eta sendoagoak sortzekoa, eta brikolajea kolonizatzea. Hori da nire asmoa orain-txe bertan. Taladroa, rotaflexa eta autonomia.

Zure sorkuntzagatik jaso zenuen iaz, hain zuzen, azkeneko “Gure artea” Eusko Jaurlaritzaren saria. Zer da horrelako sari bat zure ibilbidean?
Badu parte bat materiala dena. Sariak lasaitasun ekonomikoa ematen dizu zure burua proiektatu ahal izateko hemendik urte pare batera estudioan lanean. Lasaitasun hori sekulakoa da. Eta gero badago alde sinbolikoago bat ere, zerikusia daukana zure auto-definizioarekin, edo besteen aurrean aurkezteko duzun moduarekin. Niri pudore asko ematen dit artista naizela esateak. “Artista naiz”... Luzaz aritu naiz estrategia bila artista naizela esan ahal izateko, artista naizenik esan gabe. Garai bat izan nuen esaten nuena “artearen egiten dut lan”. Eta uste nuen horrek erraztu egingo zuela kontua, ni seguruago sentitzen nintzelako hori esanez. Baina,

horrek galderak biderkarazten zituen. “Baina, artean nola?”, “zer da artean lan egitea?”. Eta orduan hasierako puntura itzultzen nintzen. Ez da erraza. Pentsatzen dut arkitekto batek arazo gutxiago dauzkala arkitektura ikasi badu eta arkitekturan lan egiten badu arkitektoa dela esateko... Artea sublimea den zer-bait bezala ulertzeak zailtzen du bat artista dela esatea, norbere burua subimearekin lotzea delako, nolabait. Azken aldian esaten dut eskultura egiten dudala eta horrek arazo gutxiago ematen dizkit. Baina, edonola ere, horrelako sari batek leuntzen du bidea. Ez daukat artista naizenik esan beharrik. Besteek esaten dute. Erakundeek eta komunikabideek esaten dute artista naizela, eta hortaz, nik ez daukat dagoeneko horretaz arduratu beharrik. Egia esanda, niri egokitu zait justu egiten dudana izatea artea deitu zaion leku hori, baina, pentsatzen dut sorkuntzako beste esparruren batean arituko banintz ez nukeela bururik hautsiko egiten dudana artea den ala ez den gogoetan.

Ari naiz pentsatzen, nik bezalaxe arteari urrundik begiratzen dion jendeari eskatuz gero “euskal artisten

izenak” botatzeko, esango lituzkeela Oteiza, Txillida edo Basterretxea... Baina, garai bateko erreferentziak lirakeela gehienak. Euskal artea eta jende xehea gero eta urrunago daude elkarrengandik?

Ba begira, sekulako grazia egin zidan *Fakirren ahotsa* liburuan Harkaitz Canok zerrendatzen dituen 60ko hamarkadako militanteentzat antolatutako ikastaroak: “Aljeriako independentziak. Nikaraguako sandinismoak. Euskal eskulturaren pizkundez”. Euskal eskulturaz! Gaur egun euskal eskulturaz nork gogoetatzen du? Orduan bazegoen proiektu kolektibo bat –eta dena esateko, gutxiago zeuden eta ezagunagoak ziren zeudenak–. Baina, artea eta gizartearen txirikordatuago zeuden. Txillidak egin zuen nuklearraren aurkako sinboloa, amnistiarena ere berarena da, eta Euskal Herriko Unibertsitatekoa ere bai. Sinbolo konkretu batzuk sortzen ari ziren, hain zuzen, kolektiboki identifikatzeko sinbolo horiek behar genituen garaian. Gerora artea ulertzeko modu *naïf*-ago horrekin hautsi zen eta identifikazio kolektiborako sinbolo horiek modu askoz zinikoagoan erabiltzen hasi ziren –Txomin Badiola, Asier Mendizabal eta Jon Mikel Eubaren belaunaldikoak–. Eta ordutik,

zer edo zer arte izatera igarotzen den momentutik ia behartuta gaude ikusle bezala arte obra delako hori zalantzan jartzera. Eta horrek nahitaez dakar distantzia.

Xabier Gantzarainen *Zuloa* liburuan Euskal Herriaren historia hurbila artearen bitartez aztertzen da, eta han aurkitu ditut Itziar Okariz, Saioa Olmo, Miriam Isasi...

Eta egon zitezkeen Elena Aizkoa, June Crespo, Lorea Alfaro edo horien aurreko Ana Laura Aláez, Miren Arenzana, Gema Intxausti... [ikusi aldizkari honetako 44. orrialdeko elkarriketa]. Artista hauek eraman gaituzte eskultura beste leku batetik ulertzera. Pentsatzera eskultura on bat egiteko ez duzula tona bat altzairu behar, edo ez dakit zer egitura eraiki behar. Inguruan daukazun horrekin, material ez hain *duinekin* landu daitekeela eskultura. Lotu dakiokela subjektibitateari, pribatua den horri, etxekoari, eta ez publikoa denari soilik. Burdina norena da? Herriarena da ez? Harria, egurra norenak dira? Denonak. Eta zurea zer da? Ba nireak dira kuleroko hauek, lore hauek... Badago hor belaunaldi aldaketa bat. Emakume kopurua txikia da, noski, unibertsitateko Arte Ederretako ikas-





OBRA MINTZO DADILA

“Nik norbait bere lanaz entzuten dudanean, edo el-karrizketa bat irakurtzen dudanean, ez zait batere interesatzen jendeak bere intentzioaz edo nahiaz esaten duena; ‘Nik honekin adierazi nahi izan dudana da...’. Ez, ez, ez! Gustatzen zait prozesuaz eta egin duenari buruz hitz egitea. Euskal arte kontestuak, oro har, garrantzia handia ematen dio horri; prozesu batetik eratorritako ezagutzari eta ez hainbeste ideiei edo kontzeptuei edo obraren bidez landu nahi izan den balizko kontzeptuari edo ideari. Ez du balio hitzez adierazteak: ‘Nik, zera, obra honek esan nahi duena da, Brexitari buruz hau eta beste’. Eta zer? Ez dut esaten ezin denik arte politikoa egin, baina esan beharrekoa esan ezazu obraren bidez”.



leen portzentaiaren aldean. Oraindik sinetsita daukagu mutilek gaitasun handiagoa daukatela, bikainagoak direla... Eta horretatik askatzea da gehien kostako zaiguna, inoiz askatzen baldin bagara.

Gero eta gehiago dira emakumeek sortutako proiektuak ere, arte egituren kudeaketari dagokionez. Consonni, La taller, Bulegoa edo Okela, esaterako.

Bai, eta positiboa baldin bada ere, horrek badauka genealogia bat. Tradizionalki gizonak negoziotan aritu izan diren bitartean emakumeak kolekzionistak izan gara, gehienez. Eta arte egituren kudeaketan lan egitea, azkenean, besterentzat lan egitea da. Lan hori gutxietsi gabe, e! Inportantea da erreferentzia lekuak sortzea, museoetatik aparteko espazio oso gutxi daudelako erakusketak egiteko zein elkartzeko. Okelan, esaterako, hitzaldiak eta erakusketak antolatzen ditugu, batez

ere hiru ardatz kontuan hartuta: genero ikuspuntua, euskararen erabilera, eta belaunaldi edo ibilbide ezberdinetako artistak harremanetan jartzea. Eta iruditzen zait oro har askoz hobeto funtzionatzen dutela emakumeek kudeatutako espazioek, dena esan behar bada. Baina, nik, iraultza gehiago ikusten dut sortzailearen lekutik kudeaketatik baino.

Hain zuzen, zer da iraultza artean? Unean uneko obra ausartez hitz egiten denean, “hori bost urteko haurrak egin lezake” da esaldi-eginetako bat. Eta albisteek artea zer den eta zer ez den eztabaidatzera garamatzate ziklikoki. Azkenekoa, horma batera itsatsitako platan bat 120.000 dolarretan saldu zuelako Maurizio Cattelan artista italiarrak Art Basel Miami Beach galerian. Arteak badauka hori. Arte garaikidea

bada *per se* espekulatiboa. Eta espekulazio hori badago nolabait lotuta apurtzaile izateari, ezta? Horrek eragiten du arte garaikidearen inguruko diskurtso guztiak sentsazionalista izan daitezkeen obra batzuen inguruko albisteek eta diskurtsoek jatea. Eta hori etengabe gertatzen da. Orain dator Arco, ezta? [elkarrizketa lehenago egin zen]. Ba ikusiko dugu zein den aurtengo pieza polemikoa. Niri pertsonalki modu horretako pieza desafiatazaleak ez zaizkit interesatzen. Ez zaizkit interesatzen kritika instituzionala egiten duten piezak ez eta horrelako konfrontaziotik lan egiten duten lanak. Ez dut esaten sistema baten parte zaren momentutik atseginkerian aritu behar duzunik. Nik ez dakit zein den subertsibo izateko estrategia, baina, badakit zein ez den: instituzioari berari buruz hitz egitea, nahiz eta kritikarako izan. Horrek erakundeari baino ez dio mesederik egiten. ●



Mundua salbatzeko has gaitzen **ura zaintzen**

Zugatik egiten dugu, baina soilik zure laguntzarekin da posible



Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
 Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia
www.consorciodeauas.eus



Eguneroko gerra



DAVID BOU
LA DIRECTA-KO
KAZETARIA

Etxeko paretak durundatu dira, makinaren zarata gure eguneroko soinu banda bihurtu da berriz ere. Vanessa bere jatetxea ixtera behartu zuten. Bere ohiko bezeroen tristurak eta auzoa elikatzen jarraitzeko nahiak ezin izan zuten lokalaren jabe berriaren lukurreriarekin, ixtea beste aukerarik utzi ez ziona. Orain etxabeak berritzen ari dira, alokairuaren prezioa hirukoizteko eta irabaziak handitzeko. Jabea urte erdia Parisen bizi da, eta bestea Ibizan. Handik, higiezin enpresa bat kudeatzen du, Monopolyra jolasten balitz bezala dibertitzeko.

Hilabete baino gehiago da Ekhiñe eta Ruben joan zirela. Sareb-ek (Banku gaiztoa) sozietate mugatu batera eraman zuen beren etxea, eta orain, erosi zutenaren prezioa baino bost aldiz gehiago eskatzen du. Lau urtez egon zen abandonatuta, baina ez ziren gogoratu haien existentziatzat etxebizitzan sartu zirenen arte. Orduan salatu zituzten, harik eta etxetik botatzea lortu zuten arte. Orain, tapatuta eta alarmaz beteta dago, erosle batek negozio seguru batean dirua inbertitzeko.

Bizi naizen kalean gertatu diren bi kasu baino ez dira horiek, baina Bartzelonako hiri osoan zehar olio orban bat bezala hedatzen ari den gentrifikazio prozesuaren adibide dira. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren datuen arabera, 2018an 2.381 etxegabe egika-

2019ko bigarren
seihilekoan, Espainiako
Estatuko etxegabeteen
%23,3 Katalunian gertatu
ziren, baina botere
publikoek bizkarra ematen
jarraitzen diote gero eta
itogarriagoa den gehiengo
sozial bati

ritu zituzten Kataluniako hiriburuan, 1.950 alokairua ez ordaintzeagatik. Bien bitartean, hauteskunde promesetatik urrun, PSOE-Unidos Podemosen gobernu berriko ekonomia-ministroak merkatuaren erregulazioari atea itxi dio.

2019ko bigarren seihilekoan, Espainiako Estatuko etxegabeteen %23,3 Katalunian gertatu ziren, alabaina, botere publikoek bizkarra ematen jarraitzen diote gero eta itoagoa den gehiengo sozial bati. Babestu beharko lituzketen eskubideak Bartzelonako hamar barruti eta 73 auzoetan sortu diren hogeita bost etxebizitza-talde eta sindikatuen esku geratu dira. Beren borroka ez da alferrik izaten ari: iaz herri antolamenduak merkaturatzeen %50 bertan behera uztea lortu zuen herritarren presioa dela medio, horiek gauzatzeko polizia agenterik

ez zegoelako edo gizarte zerbitzuek kalitetuentzako bizileku alternatibak aurkitzeko duten ezintasunagatik.

Jabeak kexu dira euren eskubideak "urratu" direla uste dutelako, "babegabe" sentitzen dira eta "kalte ekonomikoaz" ohartarazi dute; epaileen eta poliziaren oniritzia nahi dute, jabetza pribatuaren zaindariak baitira. Lehenengoek etxegabeteetarako data irekia ezarri dute, hau da, maizterrak kanporatzeko hamabost eguneko epea izateko aukera, eguna eta ordua zehaztu gabe. Bigarren taldekoek prebentzio gailuak antolatzen dituzte kaltetutako etxeetako ateetan, segizio judiziala iritsi aurretik. Helburua: erresistentzia gero eta handiagoa saihestea eta auzokideen arteko elkartasuna geldiaraztea.

Neurri horiek erakusten dute etxebizitzaren aldeko mugimenduak sortzen dien beldurra, egunez egun hazi eta indartsuagoa ari dena, ohiko zirkulu militanteak hautsiz eta biztanle sektore txiroenetara iritsiz. Familiak mantentzeko lanetan emakumeek duten gehiegizko ordezkartza kolektibo horietara lekualdatzen da, bizitegi-larrialdiaren biktimak bezain feminizatuak. Martxoaren 8an, hiriko hainbat auzotako etxebizitza-taldeek lau okupazio iragarri zuten. Kalean geratu diren emakumei ostatu emateko balioko dute, baita elkarrekin diruzalekeria garaitu dezakegula erakusteko ere. ●

Cosa Nostrakoentzako txangoak agendan



MAIALEN BERASATEGI CATALÁN
ITZULTZAILEA



PAULA ESTÉVEZ

Bada ohitura bitxi bat udalen, hedabideen eta abarren agenda-orrietako ekitaldiak kalifikatzeko eta klasifikatzeko: begiratu bat eman, eta “familientzako txangoa”, “familia osoarentzako pelikula” eta antzekoak ikusiko dituzu nonahi.

Halakoak irakurtzen ditudanean, ni neu, testuetan jartzen duena –eta ez jarri nahi duena– ulertzeko joera gogaikarria eta zoritxarrekoa daukan hau, zurturik eta pentsakor geratu ohi naiz “familia” horiei begira-begira, zer esan nahi ote duten asmatu nahian: Cosa Nostra-ko *famiglientzako* ekitaldiak ote dira? Ni izebarekin joateko modukoak? Zahar-etxeratuta dagoen bikote bat joateko modukoak? Nire parean bizi den lagun-hirukote estu hori joateko modukoak? Alegia, ia edonorentzako ekitaldiak al dira, kontuan harturik gehienok dugula senideren bat han edo hemen, dela odolekoa, dela hautatua? Eta hala bada, hots, ia edonorentzako ekitaldiak baldin badira, ze nezesidade familiarena nabarmentzeko?

Bai, 2020an gaude, eta, testuetan hitez hitz jartzen duenari ez baizik jarri nahi duenari erreparatzen diodanetan, hau da, idazlariarekin ulermen-hitzarmena sinatu eta esan gabe doana kaskezu-

rrean deszifratzeko ohitura komenigarria hartzen dudanetan, konturatzen naiz familia umedunentzako ekitaldiez ari direla halakoetan agenda-orriak, eta instituzioak ere familia umedunez ari direla maiz beren ohar eta datuetan familiak edo familia-unitateak aipatzen dituzte-nean, edo ofizialki formalizatutako bikote batez osatutako familiei buruz bestela. Moderno ustekoak gara oso, gustatzen zaizkigu *tutti-frutti* familiak, are toleratu ere egiten ditugu batzuetan, baina familia familia da, denok dakigu zer den definitu beharrik gabe ere, ondotox dakigun bezala zeren alde dauden beren burua *familiaren aldeko aktibistatzat* daukaten talde erlijiosoak ere. Berdin dio feministek dozenaka urte badaramatzate ere esaten familia izan daitekeela odolekoa ez ezik aukeratua ere, umeduna ez ezik umegabea ere, maitasun erromantikozkoa ez ezik ahizpatasun- edo laguntasun-maitasunezkoa ere.

Kontua da zaila dela, zaila denez, halako familia arauz bestekoak osatzea eta praktikan iraunaraztea: ez ahalegintzen direnen borondate faltagatik, baizik lege- eta gizarte-babes eskasa izan ohi dutelako. Erreparatu, bestela, zure lan-itunari, lan-itunik baduzu behintzat: nor

hiltzen denean daukazu baimen-egun batzuk hartzeko eskubidea? Nor gaixotzen denean daukazu hura zaintzeko edo medikuarenera eramateko baime-na? Erreparatu arau sozialei: norekin pasatzen ditugu oporrak, Gabonak? Edo erreparatu legeari oro har: zer familia klasek ditu zerga-kenkariak eta halako beste laguntza batzuk?

Horrek denak gutxi du ausatik, noski. Sistema esaten diogun sorgin-gurpil honek ederki daki zer familia iraunaraztea komeni zaion guztia aldaturik ere ezertxo ere alda ez dadin, eta familia horixe sustatuko, lagunduko, bibatuko du beti, baita agian hura ispilatzen duten bes-telako familia batzuk ere. Ordea, familia ez-nuklearrak edo tradizioz bestekoak osatzea benetan izan ledin aukera bat eta ez oztoparriz jositako ginkana amai-gabe bat, familia nuklearrak edo tradizio-nalak benetan izan behar luke aukera bat huts-hutsean, beste askoren artekoa, eta ez familia antonomasikoa, ibai-laster sozioekonomiko guztiak itsasoratzen diren ozeanoa. Horretarako, lege-arauak aldatzea da noski mesedegarri, baina baita joko-arauak eta iruditeriak aldatzea ere: agenda-orrietatik bertatik hasita. ●

A5a eta herri-estrategia



MIKEL IRIZAR
ANALISTA POLITIKOA

EAEko hauteskundeen atarian, antzeman daiteke zer argituko duten. Lehena, EAJren inmunitatearen neurria azken asteotan erasotu duten birusekiko, izan koroidun txinatarra, edo kirasdun zaldibartarra. Kasu bietan zalantzan jarri da jeltzaleen kudeaketa, hain zuzen alderdiaren marka nagusia dena urratuz. Argituko da zenbatekoa izan den urratu hori, ea kaltetutako ingurutik noraino iritsi den eta zenbat hautesleri eragin dion. Alabaina, pitza-dura honetatik galtzen duena berdindu lezake EAJk eskuin unionistak egin duen txatxilipurdiari esker.

Bere babesean ageri da PSE-EE, Zaldibarren bezala elkarrekin gobernatzen duten erakundeetan. Oraingo hauteskundeak, aspaldiko partez, Espainiako Gobernuan daudela tokatu zaizkie, eta jakina da horrek boto saria duela. Ez dute profil nabarmenik erakutsi azken legealdi honetan eta, Irun moduko salbuespenak salbu, eroso ikusten dira laguntzaile instituzionalaren eginkizunean.

Oposizioiko lidergoan dago EH Bildu berritua EAEn. Nafarroan eta Madrilen erabat oposizioan ere ez, presidentek izendatzeko edota aurrekontuak onartzeko erabakigarri bihurtuta. Gerri politikoa erakusteak disidentzia saialdiren bat eragin dio, baina hazkunde sendoa erakusten

ari da hauteskunde guztietan. Kontua da berezko hazkundeak ez duela azkarra, eta alternatiba bihurtuko luketen aliantzak ez dauzkala oraindik eskura.

Ahal Dugu ez du une onean harrapatzen oraingo hitzorduak. Egia da EAEko aurrekontuetan erabakigarria izan dela eta Nafarroan nahiz Espainian gobernuan dagoela, baina barne liskarrak areagotu egin zaizkio eta zaila izango du gainbehera etetea. Deigarria da ezkerreko koalizioaren alde egin duen apustua, gutxienez agendan kokatu du gaia.

Eskuin unionistarena ez da EAEko logikan ulertzen, Espainiara begira baizik. Badirudi hemengo lehia galdutzat ematen dutela, eta etekina Ebrotik behera bilatzen. Harrigarria da nola iritsi den ia ezdeus izatera luzaro hain boteretsu ikusi duguna. Eskuin muturraren balizko ordezkari arabarrak ez du analisi hau asko aldatzen, badaude aurrekariak Araban.

Kontu hauekin, mapa politikoa eguneratu egingo da gehiago, aldatu baino. Alderdien arteko lehiak argituko ez duena da nola eraiki daitekeen Euskal Herriaren etorkizuneko herri-estrategia bat, hiru administrazio esparruetako ahaleginei jomuga partekatua eskaintzeko. Hori beste joko-zelai bat da, eta herritarren lana da gurdi hori mugiaraztea. ●

Denok hilko gara



UXUE APAOLAZA
IDAZLEA

Koronabirusak, kezkatu edo ez, gure buruen zati bat hartu du. Zaila da barruak eskatzen dizkigun purrustadak botatzea, heriotza aipatzen digutenean. Eta zutabea osatuta bidaltzeko zegoenean, Max von Sydow hil dela irakurri, eta xake-taularen aurrean ikusi dut, heriotzari denbora lapurtu nahian, Izurri Beltzak jotako ingurunean.

Azken egunotan, hileta elizkizun bat izan da kutsatze-fokuetakoa bat. Ohartarazpen bat dirudi: guztiok hilko gara. Hain argi ez dagoena da, zenbatek izango duen bizitzeko aukera hil baino

lehen. Baina hori galdetzea, ziur, demagogia da. Hiltzeko beldurrez, bizitzeari uzteko prest gaude: hori da zentzuduna izatea.

Esango didazue bizitzeko, nahitaezkoa dela ez hiltzea. Tira, eta zerk hiltzen gaitu? Nork galdetzen duen. Eta non. Galderak zerk beharrean nork izan behar luke. Baina aspaldi utzi genion gure beldurraren kontrola izateari, eta denok Bagdadetik ihesi lasterka abiatu gara morroi haren antzera, eta horretan arituko gara, arduratsu, Ispahan zenbat kilometrora dugun jakin gabe, itsuan. ●

Ipar Euskal Herria orratz



GOTZON BARANDIARAN ARTEAGA
IDAZLEA

Aspaldian ikusi gabeko lagunarekin berriketan aritu nintzen lehengo batean. Sortzaile eta kulturzalea berau, martxoaren 15ean eta 22an Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan deituta dituzten Herriko Etxeak eta ondorioz Euskal Hirigune Elkargoa osatzeko bozei buruz irakurritakoek lozorroan zuen azkura berreragin diotela aitortu zidan. Bere bizkaitarzentristmotik ari zela bazekiela, agian aitakeriatzat hartuko niola, baina esan beharra zidala, zenbateraino garen Lapurdi, Nafarroa Behera eta Zuberoatik euskarari eta euskal kulturgintzari mendeetan egin dizkioten ekarpenen zordun. Bernat Etxeparerena da inprimaturiko gure lehen liburua, Agosti Xahok formulatu zuen sendoen gurea zazpi lurraldek osatutako herria dela, Eusko Gogoia aldizkariak, zeinari esker Francoren diktadurak ez zuen lortu euskararen eta euskal kulturgintzaren inguruko dinamika oro desagerraraztea, Miarritzen hartu zuen aterpe bere bigarren labealdian, Mixel Labeguerie aipatzen dugu beti *Ez dok*

Luhuson prestatutako antzezlan batek Euskal Herri osoko milaka herritar inarrosteko gaitasuna baldin badu, Gasteizen ondutako batek izan beharko luke donapaleutarrak aztorarazteko aukera, ez?

amairu eta euskal kantagintza berriaren aitapontekotzat, Niko Etxart eta *Erro-bi* rocka euskaraz kantatzen lehenak, Itxaro Borda bestelako genero batzuk literaturara ekartzen aitzindaria, Mad-di Oihenart eta Amaren Alabak desgertzeaz zen kantagintza baten sugarra, EHZ Festibala, Antton Lukuk gogoetatu eta Luhuson epizentroa duen euskal antzerkigintzaren loraldi berria, maskarak, libertimenduak, pastoralak... Zerrenda asko luzatu zitzaigun. Sortzaile gisa zein antolatzaile legez, euskal kul-

turgintzari tamaina horretako ekarpena egin eta dagioten hiru lurraldeak ohiko zirkuitutik kanpo uzten ditugun irudipena duela gaitzetsi zuen lagunak, Nafarroako erdialdea eta hegoaldea, Arabako lautada eta Errioxa edota Enkarterriak, Meatzaldea eta beste anitz kanpo uzten ditugun ber maneran. Zein da, ba, izan, euskal kulturgintzaren zirkuitua? Non aurkeztu dituzte bere lanak euskal sortzaile batek? "Elkargoaren eskumena direlarik, besteak beste, kultura eta hizkuntza politika, Luhuson prestatutako antzezlan batek Euskal Herri osoko milaka herritar inarrosteko gaitasuna baldin badu, Gasteizen ondutako batek izan beharko luke donapaleutarrak aztorarazteko aukera, ez?", bota zidan ondoren lagunak. Elkargoaren, Nafarroako Gobernuaren zein EAEko Jaurlearitzaren kultura eta hizkuntza politika plan estrategikoak proposatu, eztabaidatu, adostu eta gauzatzerakoan ezinbestean aintzat hartzeko gogoeta iruditu zitzaidan, martxo eta apirilko hauteskundeotan aurkeztuko direnei ulertarazteko modukoa. ●



50 urte ura botilaratzen

Beteluren ur minerala inguru natural batean sortzen da, Aralar mendilerroaren oinean. Kalitate handikoa eta garbia izanik, tratamendurik gabe ontziratzen da bere propietateak mantentzeko, diuretikoa baita, digestio onekoa eta lasaigarria.

Ur honek dituen osagai eta propietateak bere horretan mantentzen dira, eta bereak dituen mineralai esker edan erraza da, zapore berezi eta atseginekoa.



Donostia-Iruñea errepeidea · 81890 Betelu (Nafarroa)

Tel.: 948 513 157 · www.betelu.com



Ipar Euskal Herriko enpresen engaiamendu molde berriak



Baionako Merkataritza eta Industria Ganbararen eraikin nagusia.

Ipar Euskal Herriko hainbat enpresaren bilakabidea ezagutu nahi izan dugu. Engaiamendu soziala, ingurumenarekiko ardura eta euskararen aldeko jarrera dira beren berezitasunak. Enpresen Gizarte Erantzukizun (EGE) kartaren inguruan gauzatua da ekimena. Pantxoa Bimboirekin solastatu gara, Baionako Merkataritza eta Industria Ganbarako presidenteorde (André Garreta presidentearen aholkularia) eta Lantegiak elkartearen sustatzaileetako bat. Horren lehendakari Caroline Phillipsen aburua ere jaso dugu.

 MIKEL ASURMENDI

Lantegiak elkarteak Ipar Euskal Herriko ekonomiaren molde berria antolatzen ari da. *Think tank* gisara eratua da, hau da, ekonomia inguruko ikerketa aditu talde gisa funtzionatzen du. 100 enpresa inguruk osatzen dute mugimendua. Elkarte ekonomikoek eta sozialek eratuta dago, alabada, azken hamabost urteetan Baionako Merkataritza eta Industria Ganbaran, Lanbide eta Artisauen Ganbaran (CM64an) eta Garapen Kontseiluan hautetsiak ditu. 100 lantegi horietatik 50 dira EGE/RSE (Enpresen Gizarte Erantzukizun / *Charte Responsabilité Sociétale des Entreprises*) kartaren sinatzaileak.

“EGE” DELAKO KARTA

Lantegiak elkarteak, 2000. urtean sortutako elkarte profesionala da eta EGE kartaren egilea: “EGE karta, berau sinatzean hartu diren helburuak betetzeko urrats bat da, elkartearen autoebaluazioa egiteko bitartekoa. Lantegiak elkartearen xede nagusia, Euskal Herriko enpresen bate-

ratzea, sustatzea eta defenditzea delarik”, erran digu Pantxoa Bimboirek.

Lantegiak elkarteak tokiko enpresak saretu nahi ditu, elkar laguntza bultzatuz eta bakartasuna hautsiz. Lurraldeko edozein instantziaren aurrean enpresak ordezkatzu. Enpresen artean praktika eta ideia onak partekarazteko nahikaria du elkarteak. Kartaren xedea Euskal Herrian ari diren enpresen engaiamendua ezagutaraztea da. Gisa horretara, kartaren sinatzaileak enpresen hainbat ezaugarri identifikatuta izan daitezkeen engaiatzen dira enpresen funtzionamendua hobetzeko.

ARIZMENDIARRETAREN ILDOAN

Lantegiak elkarteak urtero enpresa baikoitzari dokumentu bat igortzen dio autoebaluazioa eta segimendua egiteko. Kartaren helburuei begira, lorpenak eta zailtasunak jakinarazteko gisan. Jarduteko molde hau ez da berria, egitasmoa munduan barrena zabaldua da aspaldi. Euskal Herrian, Arrasateko Arizmendia-



ESTIA industria eta teknologien goi-eskola, "EGE" kartaren egitura ekonomikoetan ari da.

rreta taldea aitzindaria da. Ildo horretan, taldeak jardun-txosten berria eza-gutarazi zuen iragan urteko abenduan.

Hamar urte bete dira EGE delakoa sortu zela. Bestela irudi badu ere, karta ez da Merkataritza Ganbarak eginga, Lantegiak elkarteak baizik. Frantzia, enpresen sindikatuak CPMen (*Confédération des petites et moyennes entreprises*) –txikiak, eta ertainak– edo MEDEFen –goi-mailakoak– barruan ari dira. Frantziaren lurraldeen arabera ari dira, departamenduan egituratuta: “Guk nahi genuen desmarta da. Hemen aritzeko hemengo enpresen interesen ildoan antolatuta ziren enpresak. CPM eta Pirinio Atlantikoak departamenduan aritu beharrean, Ipar Euskal Herrian eratu ziren enpresak. Bertako ia lantegi denak barnean dira”.

Gure solaskidearen iritzian, beren estrategia da ekonomia bultzatzea, betiere, Euskal Herriatik bertatik lana eginez. Merkataritza Ganbaran edo Artisauen Ganbaran sartuta ere, estrategia propioa lantzen dute: “Bistan da, gure lehen zeregina lantegien zirkuituak bultzatzea da. Gure kapitala hemen emendatzea, egoitza soziala hemen ukanik, transmisioa hemen egitea, trabak sortzen direnean egitura eta sare hori hemen egon dadin. Ez dugu bakarrik departamenduan aritzea nahi, Bearnon ongi delako hemen ongi dela onartzea. ‘Han ongi dena, ongi ere dela Euskal Herrian’ lelo

orokor horrekin ez gara ados”.

Pantxoa Bimboiren erranetan, Frantziako enpresak heldu badira Euskal Herriara, kapitala hemen ezarriz, primeran. Esaterako, eta gogoratu aldera, Herrikoa inbertsio taldea duela 30 urte sortu zen hemen, tokiko enpresa laguntzen zuen baldin eta egoitza soziala Euskal Herrian baldin bazuen. Lantegiak ekimenaren bultzatzaileak aldiz, ez dira horrela ari. Enpresa horiek tokiko ekonomia baikorki eragiten badute, aitzina.

FRANTZIATIK ALDENDUZ

Itun berria atera du enpresen esparruan Frantziak, anitz puntu berri ezarri du euren funtzionamenduan. Enpresen filosofia sozialean olatu gisako bat zabaltu nahi du Emmanuelen Macronen gobernuak. Enpresa bakoitzari izateko era bat (*Raison d’Être*) eskatu dio, beren burua definitu dezaten: “Estatuak goi-mailatik tiratu eta eragin nahi du, baina berant ari da. Aldiz, tokian tokiko enpresen inguruko eragileek gobernuaren lege proposamena aztertu dugu, eta ohartu gara gu aitzinago garela. Esaterako, EGE delakoa Sokoa enpresan sartu zen aspaldi. Oraingo legea lantegi berriko kideei zuzendu zaie, baina funtsean, gu ari garen ildoan joan nahi du”.

Filosofia berri hau orain dela 50 urte zabaltu zen Euskal Herrian. EGE kartaren arauak urrats berriak dira norabide

horretan: “Enpresen ezaugarriak herriari atxikiak dira, hau da, sinesten dute enpresa ez dela dirua egiteko bakarrik. Ongizatea xerkatzen dute, kooperatiben espirituan”. Zentzu horretan, Lantegiak ekimena –EGE kartaren bidez– abiatu den garaitik egoera soziopolitiko eta ekonomikoa aldatu da, bai Euskal Herrian, bai Akitanian eta Frantzia osoan orobat. 2010 hamarkadatik lehenago eta geroko bi garai ezagutu dira tokiko ekonomian. Alta bada, datu esanguratsu bat eskaini digu: “Iparraldeko langabezia puntu bat apalagoa da Frantzian baino eta puntu erdia Akitanian baino”.

Euskal Herriko zerbitzu eta industriaren ezaugarriak eta datuak honako hauek dira. Artisauak Lanbide Ganbaran biltzen dira, *ofizialak* deituak. 13.000 dira. Batez besteko, 2,1 langile ari dira enpresa bakoitzean. Merkataritza Ganbaran, berriz, 17.000 dira izena emandakoak. Batez beste, 4,5 enplegatu ari dira enpresa bakoitzean. Guztira, 20.000 enpresak dira. Lantegi tipiak barne: “Guk ezin ditugu horiek denak inguratu. Gu enpresen muina eta mamia lantzen ari gara, ez dugu horien guztien enbeia”, zehaztu digu Bimboirek.

Caroline Phillips da Pic Digital enpresa-buruaren eta Lantegiak elkarteko lehendakariaren ikuspuntua ere bildu dugu: “EGEren kartak aukera ematen digu etenaldi bat egiteko, non gauden ikusteko, enpresen bilana egiteko, langile guztiak aurrerapen prozesuan parte har dezaten lortu aldera”.

Bere aburuz, EGE kartari atxikitzea abantaila da kalitate ikuspegi batetik, eta, beraz, “Enpresa Digital Arduratsua” etiketa lortzeko. Pic digitalarentzat (Eraldaketa digitalean aditua), EGEren karta sinatzea edo sinatzeko proiektuan engaiatzea pizgarri gisako bat izan da: “Elkarrekin aritzeak guztion indarrak bateratzen ditu, kideek jardunbide egoikiak truka ditzaten, jardunbidean aurkitutako zailtasunei planteamendu ‘ireki’ batez ekiteko”.


Elkarteko enpresek 2020. urterako hainbat bilkura aurreikusita dituzte, karta biziarazteko, aurrerabideari jarraitzeko eta enpresa atxikitzaileen barnean ere sustatzeko.

ENBATA

Iparraldeko ekonomia ulertzeko ezinbestekoa da azken hamarkadako mugimendu politikoaren bilakaera gogortzea. 60 urte pasa dira Enbata abertzale

KOOPERATIBISMOA

Arizmendiarrietaren eredua modu ezohikoan erabiltzen ari da



Arizmendiarrietaren helburua ez zen kooperatibak sortzea, baizik eta gizartea eraldatzea. Lehenengo urratsa enpresa eraldatzea zen, Elizaren Gizarte Irakasbidearen printzipioetan eta balioetan oinarrituta.

Kooperatiben bidetik jotzea erabaki zuen, bere ideiak praktikara eramateko aukerarik bideragarriena zelako. Berri-tzailea izan zen kooperatiben hainbat ezaugarritan. Industria kooperatiben eredu berria bultzatu zuen, munduan lehenengoa. Kreditu kooperatiba berezia sortzen lagundu zuen (Laboral Kutxa), munduan berezia izan zena, Kooperatibaren bazkide ez baitziren bezeroak, ez zuten kreditu erakundeak sortu koopera-tibak baizik. Beste kooperatiba batzuei ere bidea ireki zien eta haietatik etorri dira ikerketako kooperatibak –Ikerlan, besteak beste– eta unibertsitate fakul-tateak; Mondragon Unibertsitatea (MU) aitzindari izaki.

Horretaz gainera, enpresen arteko lankidetzaren kontzeptuari bultzada eman zion. Betiere, esperientzia zela azpimarratuz, pertsonen eta erkidegoaren arazoak konpontzeko giza balioak eta merkatuko lehiakortasuna uztartzea bilatzen baitzuen. Alabaina, egia hori, munduko ekonomian gertatutako aldaketen eta globalizazio prozesuaren eraginez, azken urteetan kooperatibek ohiko formula juridikoak erabili behar izan dituzte, eta horregatik, “Arizmendiarrietaren asmakizuna” gero eta modu ez ohikoagoan erabiltzen ari da. Hala izanik ere, azpimarratu behar da, batez ere Gipuzkoan, kooperatibak erreferentzia berezia direla, gauzak egiteko beste modu bat badagoela erakutsi dutelako eta enpresa munduan eragin handia dutelako.

KOOPERATIBEN AHULTASUN BATZUK, ETIKAREN IKUSPEGITIK

1. Banakako egoismoa bekatua da. Ordea, taldeko egoismoa bertute bat ote? Adibidez: aldi bateko langileen kasua dago.

Eta besteen konturako ari diren langileak. Kudeaketan, emaitzetan eta jabetzan parte-hartzea bideragarria al da?

2. Kapitalak lanaren menpeko izan behar duela dioen printzipioa ez da aplikagarria kapitala geurea denean.

3. Igualitarismoak meritokrazia ito dezake. Profesional gazteentzat ez da erakargarria.

4. Kooperatiba handiak neurri batean “funtzionarizatu” egin dira. Fagor Etxetresnen kasua muturrekoa izan da, baina ez da salbuespena.

EZ KOOPERATIBISMOA, EZTA LANKIDETZA EKONOMIA ERE


Kooperatibismoa –ezta lankidetzak ekonomia ere– ez da hirugarren bide bat kapitalismo ultraliberalaren eta sozialismo marxistaren artean. Ez da, hortaz, ia planeta osoan indarrean dagoen sistemaren alternatiba, sistema gustatu ala ez, eta moralaren ikuspuntutik egokitzen hartu ala ez. Beraz, munduko ekonomia jardueran indarrean dauden joko arauak ditu abiapuntu. Arau horiek aldatzeko beste esparru batzuetan eragin behar da, beste ikuspegi batzuetatik eta erkidego jakin batentzat egokitzea du xede, humanismo kristauaren printzipioak kontuan hartuta betiere. Uste baita, printzipio horiek ekonomia-aren ikuspegitik bideragarriak direla eta politikaren ikuspegitik egingarriak.

KOOPERATIBISMOA EUSKAL HERRIAN: ARRASATE

Euskal Herriko kooperatibismoa honelako balore hauetan oinarritzen da: pertsona guztien berdintasuna eta duintasun besterenezina errespetatzea. Enpresan eta gizartearen parte-hartzea. Gizabanakoak eta erkidegoak aurrera egiteko, ekonomiaren jardueran elkartasuna, justizia eta lankidetzak aplikatzea.

Arrasateko enpresa kooperatiboaren jardunbide batzuk aurreko balio ho-

rietan oinarritzen dira. Hau da, euskal enpresak eredu inklusibo eta partaidetzazkoa landu behar ditu, elementu iradokitzaileak sustatuz. Izan ere, humanismo kristauaren printzipioak eta balio horiek biltzen baitira Arizmendiarrietaren pentsamenduan. ●



OHARRA: Arizmendiarrietak Kristau Fundazioak “Lankidetzak Ekonomia. Utopiaren eta etsipenaren artean” txostena eman zuen argitaratzea 2019ko abenduan. Goiko testua txosten mamitsu horretatik ateratako atal batzuez osatua da.



BAIONAKO PORTUA

Baionako Portua gunee inportantea da tokiko ekonomia sustatzeko. Iragan urteetan arazoak ukan zituen, Bokaleko eta Tarnoseko metalgintzako lantegiak berant harrapatu baitzuten aro ekonomiko berria, 2008ko krisiaren ondorengo aroa. Alta, portuak hiru ziurtagiri ditu. Ingu-rumenari buruzko lehenbiziko egiaztagiria berak jaso zuen Frantzian. 2001ean Kalitatea eta Seguritatearen agiriak ere jaso zituen. Baionako portuaren jabea Akitaniako Kontseilua da, Baionako Merkataritza Ganbarak emakida edo kontzesioa dauka. 25 urtero berritzen da. Ganbarak 5-6 urterako kudeantza dauka oraindik.

Portuak Draga berria erosi zuen duela bi urte. Trenak ezartzen ditu lantegien sarea uztartzeko eta karga portutik munduratzeko. SNCFarekin (Frantziar Burdinbideen Sozietate Nazionala) elkarlanean ari da. Une batez, portuko agintaritzak kamioi-garraioa sustatu nahi izan zuen, baina Merkataritza Ganbarak trena sustatzearen aldeko jarrera hartu zuen irmo. Jardun molde hori nagusitu da energia gutxiago kontsumitzeko xedetan; errepideak gutxiago xahutzeko eta karbono gutxiago hedatzeko, eguratsa hobetu aldera betiere.



mugimendua sortu zenetik, ETaren inguruko errefuxiatuak iristen hasi ziren garaitik. Politikan nahiz ekonomian lelo bat zabaldu zen orduan: “Ez da deus igurikatu behar Parisetik, guk egin behar dugu”. Horrela sortu ziren ikastolak, baita kooperatibak ere (Alki, Olaberria eta abar). Geroago Herrikoa mailegu-emailea *–Lana herriaren lemapean–* eratu zen enpresak sortzeko.

Enbatako kide aitzindari Patxi Nollia izan zen Herrikoaren sustatzailea, herriko kapitalaren ideia-aren asmatzailea. Herrikoak 4.000 partaide dauzka, 35 urte daramatza lanak eta enpleguak sortzen (baldintza bakarra: Iparraldean behar du ukan egoitza soziala). Sokoa lantegia da horien artean buru: 1.000 partaide, 500 langile eskumeneko edo filialekin). Diru partaidetza eredu horri jarraikiz, el-karte eta mugimendu franko eraiki izan dira. Hala nola. Lurzaindia, EHLG eta Eusko moneta.

Gaur egun 5.000 akziodun baino gehiago biltzen ditu. Iaz, 116 enplegu berri sortzea ahalbidetu zuen, hamaika lantegi sustengaturik. 2019ko urte hon-darrean, urtero legez, Herrikoak hedapen kanpaina egin zuen. 245.000 euro bildu eta 57 akziodun berri egin ditu.

Enbata sortu eta 30 urte berantago, hiriko gobernamentuen politikan sartzeko lehen urratsa eman zuen Jakes Abeberryk (Enbata mugimenduko buru nagusietako bat). Bera izan zen aitzindari. Berak deliberratu zuen duela 25 urte inguruan, Biarritz hiriko herriko etxean sartu behar zela frantses hautagai baten zerrendan. Kritika gogorak ukan zituen hainbat sektore abertzaleen aldetik, baina *–Pantxoa Bimboiren erranetan–* abertzaleen jarduteko moldeak aldatu zituen, baita abertzale ez diren abertzaleekiko ikusmoldeak eta jarrerak aldatu ere.

Gaur egun, hautetsi batek, izan dadin ezkerreko ala eskuineko, euskal munduko bozak behar ditu; gutxieneko akordio batzuetara iritsi behar du. Adibidez, urtetik urtera izaten diren ohiko mobilizazioetan, hala nola urtarrileko bakearen aldeko manifestazioetan Iparraldeko hautetsiak bildu dira *–diputatuak, senatariak eta ia auzapez guztiak–*.

EUSKAL ELKARGOAREN SORRERA

Orain dela lau urte, Frantziako Gobernuak delibero erabakigarria hartu zuen. Pierre-André Durand prefektak *–François Hollande presidente ohiaren gobernuak eraginda–* Iparraldeko herrietako hautetsi guztiei elkarrekin elkargoaren alde bozkatzeara proposatu zien. Baionako herriak hautatu baitzuen Jean-René Etchegaray auzapez zentrista irekia. Iparraldea lurralde bakar batean antolatzeko, hautetsien %70k alde egin zuen. Euskal Elkargoak eskumenak bere gain hartu ditu. Eskumen ekonomikoa ez da engoitik departamentuan, euskal lurraldean eta lurraldearentzako baizik.

Pantxoa Bimboiren ikuspuntutik, aipatu datu horiek guztiak politikari lotu behar zaizkio. Horiek Iparraldeko ekonomiaren ingurumaria aldatu dute. Gisa horretara, estrategia gero eta irekiagoak gauzatu ahal izanen dira lurraldearen onerako: “Ekonomiaren esparruak non eta nola eraiki. Nola lagundu sektoreak, nola orekatu kostaldea eta barnealdea, nola egin lokarria laborantza munduaren eta kontsumo munduaren artean. Lurra nola atxiki edo eskuratu, mundu pribatuaren asmoei aurre eginez espekulazioari ihes egiteko?”.

Hemendik aitzina, erantzun horiek antzemateko lan egin behar dela erran digu solaskideak. ●



"EGE" KARTAREN PUNTU ZENBAIT

LURRALDEA INDARTZEKO INBERTSIOA

Eremu soziala indartu aldera, enpresak hainbat alor zaintzen ditu: 1. Euskal Herrian sortu behar diren enpleguak indartzea. 2. Bost urtero gutxienez, kapitala inbertitzea. 3. Urte bateko antzinarotasunaren ondoren mugagabeko kontratua langileei proposatzea (SMIC: + %5 gutienez), desmartxa orokor baten barruan aurrera egiteko. 4. Kontratu mugatuak hilabeteko soldaten kopuruan %20tan mugatuak izatea; sasoiko enpresen beharrez salbu. 5. Lan soldaten eskala orokorra 1tik 6ra antolatzea. 6. Etekinak modu batean ala bestean hiru urteren buruan hein batean langileekin partekatzea.

Honako puntu hauek ere lantzen ditu: 1. Kluster batean kidetzea (bost Iparraldean eta bat mugaz gaindiko Hegoaldean). 2. Kapitalean engaiamendua: Herrikoa-koa partaidea den enpresa batekin (salmenta-erosmena indartuz). Energia ere lantzen du (1 Ener/energia, saila indartuz). Lurren aldeko inizatibak sustatzen ditu (Lurzaindia), Iparraldean kokatzen diren lurren aldeko enpresak suspertzen.

LURRALDEA ETA GIZARTEAREN AITZINAMENDUA

Langileak ekimenak enpresak honako desmartxak zaindu beharko ditu: 1. Tokian berean erostea eta zirkuito laburrak lehenestea. 2. Hiru urte barnean mezenasgo bat gauzatzea. 3. EGE kartaren espirituan ahal bezainbat aitzinamendu egitea. 4. Euskararen ikaskuntza eta erabilera sustengatzea.

Aberastasunen partekatzea: primen edo emaitzena, hots. Emaitzen interesa. Kapitalaren parte-hartzea. Horrez gain, *Dialogue Social Pays Basque* elkartean izena ematea (10 langile baino gutiago duten enpresei zuzenduta dago). Atxikimendu horri esker langileek kostuen tipitzeak izanzen dituzte. Gazteak lan munduan sarrarazteko neurriak hartzea (aprendizgoa, ikastaroak edota beste).

Lurraldea eta gizartea atalak: elbarrituen laguntzeko egiturak sustatu (Agephip edo Seaskako Integrazio Batzordea). Presoen birgizarteratzea lagundu. Egitura ekonomikoak: Eusko mone-ta, Lantegiak, Cle, Hemen, Hazia, EHLG, lurraldeko eskolak. Seaska, Estia eta abar sostengatu. Kulturaren sustapena: euskarazko ekitaldiak, pastoralak, bertsolaritza, kantua eta abar laguntzea, pilota edota lurraldeko kirol elkarteak barne. Euskararen aldeko ekimenak lantegietan bultzatzea bereziki: euskararen irakaskuntzari garrantzia emanez, barne eta kanpo komunikazioa euskaraz indartzeko langilea kontratatzean euskararekiko haren irizpidea kontuan hartzea lehenetsi da.

ALDE EKOLOGIKOA

Honako puntuak hobetsi dira: 1. Hondarren birziklapena. 2. Mugikortasun eztea lehenetsi eta energia gastuak mugatzea. 2. Langileria garapen iraunkorreko erosketekiko sentsibilizatzea. 3. Energia hornitzailez aldatu lurraldean, inplikazioa hautatuz (Energia-n, adibidez). 4. Transmisioa: enpresaren jarraipena. Enpresa Euskal Herrian egon dadin, transmisio unean aterabideak biltzea ahal den heinean.

Ogiaren egia
galparsoro OKINDEGIA
 Ogi biologikoak
 Harri erroten xehetutako irinarekin egindako ogiak
 Orantza ogiak
 Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074

TRADEBI
 TRANSLATION
tradebi@tradebi.com

mitxelena
 NEURRI HANDIKO MEKANIZAZIOA

EZIAGO POLIGONOA, 21
 HERNANI
info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com



Mutilen eta nesken dantzak bereiztea duela ehun urteko sorkuntza kontzeptuala izan zen”

Oier Araolaza

Dantzari eta antropologoa

“Genero-identitatea euskal dantza tradizionalaren eraikuntzan” doktorego-tesia aurkeztar da Oier Araolaza dantzari eta antropologo eibartarra. Gaur arte dantzetan iraun duten estereotipo bitarrak noiz, nola eta zein asmorekin sortu zituzten aztertu du. Gero eta gehiago dira rol horietatik aske den dantzaren aldeko apustua egiten ari direnak, baina oraindik bada lanik.

Zenbaterainoko garrantzia du dantzak komunitate baten eraikuntza identitarioan?

Komunitate nazionalen eraikuntzarako inportantea izan da historikoki, bai gu-rean, baita inguruko komunitateetara begiratzen badugu ere: Espainiak flamenkoarekin izan duen lotura historikoa hor dago, sardanaren garrantzia Katalunian... Eta Euskal Herrian ere, XX. mende hasieran euskal nazioaren identitatea eraikitze horretan zeresana izan zuten ezpata-dantzak, poxpolinak edota Santa Agedak, komunitatea egituratu eta aldi berean komunitate hori sinbolikoki irudikatzen orduan. Ispilu lana egiten du dantzak, gi-

oso garbia da erabilera hori, abertzaleta-sunak lehenengo unetik jarriko duelako hor begirada (antzerkiarekin eta musikarekin batera). Batzokiak sortzen hasiko dira herriz herri eta batzokia martxan jartzearekin bat antolatuko dituzten ekitaldietan ia beti egongo da dantza tartean. Gazteak erakartzeko funtzioa beteko du, besteak beste.

Instrumentalizazio prozesu horretan, generoaren arabera sailkapena txertatuko da.

Adituek diote XIX. mende amaieratik datorren sexuaren biologizazio eta zientifizazioa (emakume eta gizonak sortzez ezberdinak garena azpimarratzen duena) lehertu egingo dela XX. mende hasieran, zientziak hartzen duen bote-reagatik, eta genero bereizketan sakontzea ekarriko du horrek. Garai horretan sortzen ari diren tradizioei genero ikuspegi berria txertatuko zaie eta oso muturreko binarismora joko duen eredu indar guztiz proiektatuko da dantzetan. Tresna eraginkorra bihurtuko da gainera dantza, binarismo hori gorpuzteko eta estereotipoak eta rola gizarteratzeko eta elikatzeko.

Nola gauzatuko da dantzan genero bereizketa?

Dantzan egiteko gizonetzko eta emakumezko modu erabat bereziak eraikiko dira. Batetik, errepertorio ezberdinak egingo dira, emakumeen dantzak eta gizonen dantzak. Ordura arte ez zegoen halako sailkapenik eta esaterako aureskua, gizonak eta emakumeek egiten zuten, gizonen dantza gisa kategorizatu-ko da eta hortik aurrera gizonen dantzatuko dute. Berdin ezpata-dantzarekin, makil-dantzarekin eta nolabait biolentzia edota indarra ezaugarri nagusia duten dantzekin. Aldiz, harmonia, goxotasuna eta gisako ezaugarriak dituzten dantzak emakumeen dantza bezala sailkatuko dituzte, nahiz eta aurretik gizonen ere dantzatzeko zituzten (arku-dantzak, zinta-dantzak, sagar-dantzak...).

Bestetik, janzkeran ere eragingo du. Gizonen joan beharko dute zuriz, praka

luzeekin, abarketekin eta txapel eta gorriko gorritz jantzita. Emakumeak gona gorria eta buruko zapia egokituko zaizkio. Aurretik, emakumeek txapelarekin dantzatzea guztiz arrunta zen eta praka motzekin ere egin ohi zuten.

Azkenik, dantzakeran ere sartuko dute eskua: gorputz keinu bortitza goak gizonentzat (hanka altxatzea kasu) eta xamurragoak emakumeentzat, zenbaite-tan janzkerak berak baldintzatuta (gonak, alegia).

Eta zer kasualitatea, prestigio handiena duten dantzak dira gizonen dantza gisa sailkatutakoak.

Ez alferrik, kategorizazioak hierarkizazioa dakar berarekin eta dudarik gabe, ikusgarritasun eta prestigio handiena dutenak gizonen dantza gisa identifikatutakoak dira. Sabino Aranek idatzi zuen adibidez euskaldunon nortasuna ongien islatzen duten dantzak ezpata-dantzak dira eta ezpata-dantzen ezaugarri nagusia gizontasuna dela (*viril* dio berak), eta beste dantza batzuk erabat gatzgabeak eta aspergarriak iruditzen zaizkio, hala nola zinta-dantzak, eta horiek egokiago ikusten ditu emakume eta umeentzat.

Horren guztiaren herentzia da euskal dantzen egungo panorama?

XX. mendea luzea izan da eta askorako eman du, garai bakoitzak bere aztarnak utzi ditu, baina bai, genero rolen pisuaz ari garena, egun daukagunaren erantzun ugari orduko sailkapen hartan aurkitu ditzakegu. Oraindik ere mutilen

eta nesken dantzetan pentsatzen dugu eta sailkapen hori duela ehun urteko sorkuntza kontzeptual bat dela jakitea funtsezkoa iruditzen zait, nola jokatu nahi dugun erabakitzeko. Alegia, kontziente izatea sailkapen hori ez zela izan plazan gertatzen ari zenaren deskribapena, helburu jakin batzuekin egindako sorkuntza kontzeptuala baizik. Bestela, sorkuntza kontzeptuala dena jasotzen badugu erabat naturala bailitzan (sortzez ezberdinak garenez, normala da dantza ezberdinak egitea), zailagoa da benetako parekidetasun baterako bidea egitea.

“
**XX. mende hasieran,
muturreko binarismora
joko duen eredu indar guztiz
proiektatuko da dantzetan eta
tresna eraginkor bihurtuko
dira, binarismo hori
gorpuzteko eta rola
gizarteratzeko eta
elikatzeko”**

zarteari bere buruaren isla itzultzen diolako plaza publikoan, modu zehatz batean proiektatua. Plaza publiko horretan identifikatuta ikusten du bere burua komunitateak, eta horregatik da identitate eta kohesio indartzeko proposa.

Dantzaren instrumentalizazioa eman zen XIX. mende amaieran eta XX. hasieran, tesian diozunez.

Garai horretan, Europa osoan hainbat tradizioen sorkuntza prozesuak gertatuko dira, koloniekiko emantzipazioarekin eta nazionalismoen sorrerarekin lotuta, eta esan bezala identitatea eta kohesioa bul-tzatzea helburu. Euskal dantzen kasuan

Izan ere, aipatu duzun moduan, dantzak duen balio sinbolikoagatik eta gizartearen ispilu izateko gaitasunagatik, ongi bete du bere lana eta genero bitarra naturalizat ikusarazteko tresna aproposa izan da. Ahaztu gabe dantzak gorputza duela tresna nagusi eta binarismoa gorputzaren naturalizazio batean oinarritzen denez, dantzak lagundu duela gorputz (eta mugimendu) bereizketa hori egiten, gorputzen bidez adierazita-koa ideien mundura eramaten.

Generoaz ari gara, baina adinari ere eragin al zioten garai hartako erabakiek?

Bai, eta baliagarria da konturatzeko gaur egun indarrean ditugun estereotipoak berriak direla, XX. mende hasierara arte adinekoak dantzan aritzea ez bakarrik gaur egun baino arruntagoa, sozialki ere baloratuagoa baitzen. Adinekoen txapelketak eta adinekoak aurrerakuntza aritzea ohiko zen.

XX. mende hasierako sailkapenaren aurretik euskal dantzak genero-markarik gabeko jardueraz zirela ulertu behar dugu?

Arriskua hor dago, une jakin batean genero-marka oso garbiak dituzten dantzak eraiki zirela diogulako pentsatzea aurretik ez zegoela genero-markarik. Gehiegi esatea litzateke, baina bai esan daiteke mugak askoz lausoagoak zirela, estereotipo eta rola ez zirela hain garbiak, eta aukera gehiago zegoela mugak gurutzatzeko. Gainera, ezaugarri batzuek ez zuten genero-marka zehatzik, gerora izango duten moduan; mugimendu harmoniatu eta goxoek, esaterako, ez zuten genero-markarik. Laburbilduz, desordenatuagoa zen dena, ez gero bezain zurrin.

Hain juxtu, emakumeek ere dantzatzeko zituzten gerora gizonen dantzatzeko hartuak, kontrakoa kontatu den arren.

Aurreratuaren kasuan ikusi dugu: 1900eko hamarkadatik aurrera sistematikoki errepikatuko da emakumeek ez zutela aurreratu dantzatzeko eta hori ez da hala, XX. mendera arte aurreratu dantzatzeko zuten emakumeen kasuak ezagutu

ditugu. Tesian ikertu dut zergatik esan zuten gezurra Aita Donostiak eta garai hartako beste zenbait adituk, zergatik ukatu zuten emakumeek aurreratu dantzatzeko zutela. Ez zen hautu kontzientea izan, moral kristaua, abertzaletasuna eta genero ikuspegia gurutzatuta jasotako errelatoa baizik.

“Dantzan genero bazterketekin bukatzeko ez guke historiaren eta tradizioaren justifikaziorik beharko”, diozu

tesian. Baina tradizioa argudio gisa erabilita ere –maiz egin ohi den moduan–, tesi honek erakusten digu tradizioa sarri errelato desitxuratu dela.

Areago, tradizioa sortu egiten da, sailkapenekin gertatu zen moduan.

Virginia Maquieira antropologo feminista-entzuten, tradizioa da ordena garaikidea berretsi edo zalantzan jartzeko prozesu aktiboa. Ikuspegi interesgarria iruditzen zait, gure gain jartzen duelako tradizioa berregiteko ardura. Tradizioaren ikuspegi atzerakoiagoak dio tradizioa dela guregandik kanpo dagoen zerbait, zeinengan ez dugun eragiteko ahalmenik, eta nik ez dut horretan sinesten, tradizioa etengabe berregiten eta eraldatzen dugula uste dudalako. Hain zuzen, horri esker irauten du, egokitzen ez den tradizioa eten eta hil egiten delako, historia liburuetan geratzen da.

Tradizio eraldaketa horretan, gero eta gehiago dira jai eta ekitaldi herrikoietan emakumeen parte-hartzea bermatzen duten dantzak, baina leku batzuetan oraindik ez da hala gertatzen. Pasa den hilabeteko albisteak da, Markina-Xemeingo saragi-dantzan lehenengo aldiz hartu dutela parte emakumeek, eta kostata lortu dute gainera. Gatazka sortzen al du gaiak?



Oraindik izango ditugu horrelako albiste gehiago. Baztango mutil-dantzak harrotu ditu hauts gehien, baina gatazka gehiago ziur izan direla eta izango direla oraindik. Kanpotik begiratuta behintzat intentsitate baxuko gatazka

dira; komunitate bakoitzak bere baitan ebazten dituen tentsioak. Egia da Hondarribiko eta Irungo alardeek txerto moduan funtzionatu dutela, eta horri gehitu behar zaio azken bost urtetan belaunaldi gazteagoek ikuspegi berriak ekarri dituztela.

Eta hala ere, oraindik asko dago egiteko.

Leku batzuetan ematen ari diren konponbideek, esaterako, genero bereizketa sustatzen jarraitzen dute, berdintasunaren aldeko urrats gisa saldu arren. Zenbaitetan, adibidez, emakumeak hasi dira parte hartzen ordura arte aritzen ez ziren dantzetan, baina haien zati txiki bat sorturiko jantziekin.

“Mutilak gero eta urrutiago daude dantzatik, eta gero eta goizago aldentzen dira oro har, gizartearen genero-marka femeninoa esleitzen diegun jardueretatik. Erronka zaila dugu, gizarte bezala”



OIER ARROLAZA

AITZINDARI. 2004an emakumeek Lizartzako inauteri-dantzetan lehen aldiz parte hartu zuteneko argazkia.

Eta hori da ulertzea horrelako errituetan gizon dantzari edo emakume dantzari gisa baino ezin dela parte hartu, ez dantzari soil gisa.

Jai herrikoiez ari gara, baina ekitaldi ofizialagoetan, ez al da ia beti gizona aureskua dantzatzeko duena?

Instituzionalki egiten diren ustezko goi mailako ekitaldi publikoetan (Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak, diputazioek, hiriburuetako udalek antolatutakoetan), gizonen presentziak jarraitzen du izaten nagusi; bigarren eta hirugarren mailakoetan (herrietako udalek antolatutakoak), ez nuke esango nagusitasun hori mantentzen denik, baina ez atzean berdintasunaren hautu garbia dagoelako, dantza gaur egun oso-oso feminizatutako arloa delako baizik, eta dauden premia protokolarioei erantzuteko errazagoa izan ohi da emakumeak aurkitzea, gizonak baino.

Genero rolen tiraniak dantzatik aldentzen baititu mutilak...

Hori da gaur egun eta ziurrenik hurrengo urteetan izango dugun erronkarik

zailena. Irudipena daukat, emakumeen bazterketa egon ez dadin dantzan ematen ari garen pauso bakoitzeko, rolen asignazioan pauso bat edo bi atzera egiten dugula. Mutilak gero eta urrutiago daude dantzatik, eta gero eta goizago aldentzen dira gainera. Ez dantzatik bakarrik, gizartearen genero-marka feminoa esleitzen diegun jardueretatik oro har. Gizarte bezala ongi aztertu beharreko auzia da.

Dantzan genero markak ezabatzea izan daiteke horri aurre egiteko bidea?

Hala da, beharrezkoa ez den tokietan genero-markak ez genituzke haizatu ez sustatu beharko. Areago, gaur egun euskal dantzetara ikuspegi ireki batetik iristen direnek ez dituzte genero-markadun keinuak lantzen edo barneratzen. Horrek ez du esan nahi hainbat eskolatan-eta lantzen ez direnik, baina ez da dantzak berez daukan zerbait.

Genero rolik gabeko dantza askean bidea egiten ari diren horien artean, adibide eredugarriak?

2005etik aurrera izugarritzko aurre-
rapausoak eman dira arlo horretan. Batzuek aurretik eman zituzten urratsak; esaterako, aipatzekoa da Andoaingo Axeri dantzan 2.000. urtean egin zuten aldaketa edo Lizartzako inauteri dantzetan egindakoa. 2005etik aurrera, olatu bat hasiko da genero-markarik gabeko ezpata-dantzak han hemenka sustatuko dituenak: Eibar, Iruñea, Elgoibar, Andoaingo, Biarritz, Sestao, Portugalete... Sistema koreografikoa goitik behera tradizionala izanda, genero-markarik gabe eraikitako dantzak dira: emakumeek eta gizonen genero-rolik gabe hartzen dute parte, ezpata-dantzari dira denak. Generorik gabeko ikuspegia zabaltzeko lagungarriak izan dira. ●

“2005etik aurrera, olatu bat hasiko da genero-markarik gabeko ezpata-dantzak han hemenka sustatuko dituenak”

HAUSPOTU PROGRAMA

Despopulazioari balazta, ekonomia eraldatzailearen bidez

Herri eta bailara ugari basamortu bihurtzen ari da Euskal Herrian. Lan eta zerbitzurik gabe, egungo merkatuak bazterturiko eremuotan nola bizi? Egoera hori irauli nahi du Udalbiltzak, eta horretarako, logika lehiakorretik at, pertsonak erdigunean jartzen dituen ekonomia eraldatzaileko proiektuak bultzatuko ditu.

 URKO APAOLAZA AVILA

Anbiziotsua da oso Udalbiltzaren egitasmoa, aurrean daukagun larrialdiaren parekoa, hain zuzen. Despopulazioa. Azken urteetan gero eta maizago entzuten ari garen hitza, beste hainbat lurralde arazoren sorburu eta ondorioa da. Euskal Herriko udal eta hautetsiak biltzen dituen erakundeak, ekonomia eraldatzailearen bidez jarri nahi dio balazta eremu zabaletan biztanleria galerak ekarritako egoera larriari, eta proiektuak bultzatu eta diruz lagunduko ditu herri horietan. *Hauspotu, herriak bizituz* izeneko programan bidaide izango ditu OlatuKoop sarea eta Koop57 finantza etikoen erakundea.

Udalbiltza ez da hutsetik hasi ordea, lehenago ere Zuberoan eta Pirinioetan martxan jarri ditu antzekoak –*Pirinioan lan eta bizi* ekimena kasu– eta horien arrakasta ikusita eman du oraingo urratsa: “Pirinioetako ekimena baliagarria zela ikusi eta eskualde gehiagotara zabaltzea ondo legokeela pentsatu genuen”, azaldu digu Jabi Asurmendi Udalbiltzako lehendakariak. Horretarako baina, aurretik Gaindegia ikerketa bat agindu zioten hiru adierazle zehatzen in-

guruan: despopulazioa, langabezia tasa eta zerbitzuen eskuragarritasuna.

“IRRI” BAT EUSKAL HERRIAREN MAPAN

Emaitza horiek eskuan hasi ziren lanean: “Eskualde batzuetan datuak bereziki kezkarriak ziren eta horiek aukeratu genituen proiektuak lantzeko”. Pirinioen bi aldeak, Nafarroa erdialdea, Arabako zati handi bat eta Enkarterriak lehenetsi dituzte. Izan ere, Euskal Herriko mapa hartuz gero (ikusi 34. orrialdean), zirkulu erdi edo *irri* baten traza osatzen du eremu zabal horrek, baina Gaindegia datuek ez dute baikortasunerako biderik ematen.

Adibidez, Erronkari eta Zaraitzu ibarretan biztanleriak %15,5 egin du behe-rama hamar urtean, Arabako mendialdean %8,3, Zuberoan %4,5... Langabezia tasa baxua da, baina populazioaren zahartzeak eraginda, eta horrek areagotu egiten ditu oinarritzko zerbitzuak urrun edukitzearen kalteak: herri gehienetan osasun zentroak 20 kilometrotara dituzte adinekoek, eta eskola gertukoenak berriz 10 kilometrotara daude.

Ondorioa argia da: zenbat eta urrunago eduki zerbitzuak eta aktibitate laborala, orduan eta biztanleria galera handiagoa jasaten dute herriek. Hori kontuan edukita, Gaindegia osaturiko “eskualde kritikoen rankingean”, aipatu *irri* horretako guztiak goiko postuetan daude.

Asurmendi Arakaldoko alkatea da, Aiaraldean dagoen 160 biztanleko herria, eta ondo ezagutzen ditu gabezia horiek: “Dendarik ez dago eta erosketak egiteko edo beste edozein zerbitzu jasotzeko herritik irten behar duzu. Askotan garraio pribatua hartzea beste erremediorik ez dago, baina kasuistika ezberdinak ditugu: gidatzen ez duten pertsonak, zailtasunak dituztenak, haurrak... Alde egiteko arrazoia izan liteke”.

LAGUNTZA TEKNIKO ETA EKONOMIKOA

Merkatuek bazterrean utzitako herrietan logika merkantilistak ez du balio zerbitzuak herritarren eskura jartzeko garaian. Horregatik jo du Udalbiltzak ekonomia eraldatzaileara, “guztiz” parte-katzen dituelako bere balioak: “Produk-



SEI HERRI. Gares (Nafarroa), Argantzun (Araba), Agoitz (Nafarroa), Galoze (Nafarroa), Balmaseda (Bizkaia) eta Izuran (Behe Nafarroa) ari dira egiten formazio saioak, OlatuKoopeko eta Koop57ko kideek gidatuta. Denera 70 pertsona baino gehiagok hartu du parte oraingoz. Irudian, Galozekoa.

UDALBILTZA

tuak eta zerbitzuak herritarren beharrek asetzeko sortu behar dira, eta ez alderantziz”, dio Asurmendik

Hauspotu programan formazio saioak antolatu dituzte hainbat herritan OlatuKoopeko kideek gidatuta, eta eredu izan daitezkeen proiektuak ezagutzeko aukera dute bertaratuek, batez ere agroekologia, zaintza eta etxebizitzaren ingurukoak, arlo horiek bultzatu nahi baitituzte. Babes tekniko horren barruan, programan parte-hartzen dutenek bidelaguntza ere izango dute euren proiektua aurrera ateratzeko. Leire Udabe Zarauzko Lakari kooperatibako eta OlatuKoopeko kidea aritu da saio horietan hizlari: “Guretzat aukera izugarria da ekonomia sozial eraldatzailea sustatzeko”.

Programaren beste ardatza ekonomikoa da. Koop57ren bitartekaritzari esker, diru-funtsa osatu dute proiektuak finantza etiko eta solidarioan oinarrituriko mikrokredituen bidez laguntzeko.

Oraingoz Garesen, Argantzunen, Galozen eta Agoitzen egin dituzte saioak, eta beste bi geratzen zaizkie lehen fasea amaitzeko, bata Balmasedan eta bes-

tea Izuran. Horrez gain, batzar orokor bat ere egingo dute hausnarketa eta ideia orokorrakoak partekatzeko. Antolatzaileak kontent dira erantzunarekin, 70 pertsona inguru bildu baitituzte oraingoz; herrietako beharrak kontuan hartzen dituen formazioa eskaini eta tokian bertan sorturiko proiektuak bultzatzean datza giltza, euren ustez: “Oso sentsazio onarekin ari gara geratzen, ikusten ari garela toki bakoitzean badaudela proiektuak”, azaldu du Koop57ko Gorka Juliok.

HERRITARREN INPLIKAZIOA FUNTSEZKO

“Herritik jaiotako proiektuak” izango direla argi du Asurmendik, tokiko eragile eta elkarteekin lan handia egin baitute eskualde bakoitzeko kezak eta beharrak identifikatzeko. Zentzu horretan, ez du zalantzarik, ordainetan, herritarrek konpromisoa eta inplikazioa erakutsiko dute-

la horiekiko, bai gertutasunagatik, bai ikuspuntu ekologiko batetik jasanga- rriagoak izango direlako eta baita aha- legina eskertzeko ere: “Nik militantzia bezala ikusten dut: zer gutxiago herriko sugarra bizirik mantentzeko egindako lanari erantzutea baino”.

Nolanahi ere, kulturalki aldaketa handia beharko dela badakite, esate- rako jabetza pribatuak duen estatus ukiezinari dagokionean: “Kontsumo eta jabetza eredu batzuk dauzkagu bar- neratuta, kontziente izan gabe

horrek guztiak nora eramaten gaituen”. Etxebizitzaren arloa izan liteke adibide bat, hainbeste etxe huts dauden tokian, nola liteke etxebizitza arazo izatea? Hain zuzen, Agoitzen otsailaren 28an egindako formazio saioan etxebizitza komunitarioko esperien- ztien berri eman zuten.

Lurra bera ere faktore ga- rrantzitsua da, lehen sektoreari hain loturik dauden bailaretan. Norbana-

“
Produktuak eta zerbitzuak herritarren beharrak asetzeko sortu behar dira, eta ez alderantziz”

Jabi Asurmendi
Udalbiltzako lehendakaria



Ereduak

Saioetan eredu izan daitezkeen proiektuak ere aurkeztu dituzte. Irudian, Amillenako kideak, Arrazola-Atxondon elikadura burujabetza feminista eskaintzen duen jatetxea.



Aurkezpena

Donostian aurkeztu zuten ekimena urtarrilaren 27an. Irudian, Gorka Julio (Koop57), Jabi Asurmendi (Udalbiltza) eta Leire Udabe (OlatuKoop).



Tokiko proiektuak

Herrietatik sorturiko behar eta kezka izan dituzte kontuan formazioa eskaintzeko orduan. Irudian, Argantzungo udaletxean, Trebiñun.



Gares

Lehen saioa Garesen egin zuten eta, besteak beste, Aiaraldea Koop-en esperientzia ezagutu zuten.

koek bezala udalek ere badute ardurarik terrenoen lagapenean. Asurmendik Ipar Euskal Herriko Lurzaindiaren proiektua nabarmendu du, formazioa eta ustiapenen jarraipena lehenesten baititu jabetza-ren aurretik.

DESPOPULAZIOA DENON ARAZOA DA

Urruneko eskualdeek bizirik irautea ez da soilik hango biztanleen ardurapean dagoen borroka. Despopulazioa eta, ondorioz, lurraldearen desertifikazioa, denon arazoa da, hirietan bizi direnena ere bai.

Lurralde oreka mantentzea zein garrantzitsua den erakusten digu datu batek: Nafarroako eskualde mailako herri historiko eta garrantzitsuak, Tafalla edo Lizarra kasu, biztanleak galtzen hasi dira, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak txosten batean jakinarazi duenez. Domino fitxen tankeran erortzeko arriskua dute

**Merkatuek bazterrean
utzitako herrietan
logika merkantilistak
ez du balio.
Horregatik jo du
Udalbiltzak ekonomia
eraldatzailera**

herri koskorrek ere, CaixaBank bera kezkatzeraino –Nafarroako Kutxa irentsi zuen bankua, ez ahaztu irakurle–: “Inguruko herrietan ez badago biztanlerik, hauen merkataritza, aisialdi eta osasun eskaintzek ez dute zentzurik eta desagertu egingo dira”.

Ikuspegi ekonomizista hutsetik haragokoa da auzia, ordea. Izan ere, herri txikiekin batera naturari loturiko kultura eta bizimoduak bazterrean uzten baditugu, larrialdi klimatikoarekin gainean ditugun erronkei aurre egiteko jakintza oso bat ere galduko dugu: “Ikusi besterik ez dago, adibidez, auzolana zein inportantea izan den. Despopulazioak hori guztia galtzea ere badakar atzetik”, dio Udalbiltzako lehendakariak.

Urbizidio edo ekozidio antzeko horiek gertatu ez daitezken –herrien eta naturaren suntsiketa–, pertsona erdigunean jarriko duten lurralde bizigarriak behar ditugu. *Hauspotu* norabide horretan doa, eta Udabek laburbildu duen moduan, erakutsi nahi du “posible dela Euskal Herriko txoko ezberdinetan lan egin eta nork bere bizi proiektua eraikitzea”. Posible dela irri egitea, alegia. ●

“

Diskurtso aldaketa sumatzen da euskaraz kantatzeko hautuaz”

LANDER MUÑAGORRI

‘ZERGATIK KANTATU EUSKARAZ?’ LANAREN EGILEA

Aldarria ez da oraingoxea. Galdera ikurra dakar, baina bistan da erretorikoa dela: “Guk euskaraz, zuk zergatik ez?”. Hala ere, aldiro-aldiro jo behar den atea da, egin behar den formulazioa, nola egin baitu Lander Muñagorri Garmendia (Ordizia, 1986) kazetariak, kantagintzari zuzendua: Zergatik kantatu euskaraz?

 MIEL A. ELUSTONDO

Zerk eraman zintuen galdera horretara?

Musikazalea naiz, batetik. Bestetik, euskaraz kantatzen da oraindik. Argitaratzen diren diskorik gehienak euskaraz datoz, baina kantariek egin duten hizkuntza hautuaren atzean diskurtso aldaketa dagoela sumatzen da. Ikerketa egin dut, susmo horretara inguratuta. Horretarako, hiru musikari elkarrizketatu ditut: Izaro Andres, Josune Arakistain –Huntzakoa–, eta Iñigo Etxezarreta, En Tol Sarmientokoa. Hirurek ere 2010eko hamarkadan argitaratu zuten beren lehen diskoa, arrakasta izan zuten, beren belaunaldiaren nola-halako erreferentzialtasuna irabazia dute, eta gazteen artean eragina izan dezaketela sumatuz, haiekin hitz egin nuen.

Zergatik egin duten hizkuntza hautu jakin bat jakin nahi zenuen.

Bai, hizkuntza hautu horren arrazoiak aztertzea nuen helburua. Batzuek dio-

te naturaltasunez egiten dutela hautu hori; beste batzuek, aldiz, hauturik ez dutela egiten; ez zaiela axola zein hizkuntzatan kantatu... 70eko hamarkadaz gero, hautu hori jakinaren gainean egin dute euskal taldeek. Nahi izanez gero, 80ko hamarkadan gaztelaniaz kantatzeko joera zabaldu zen, baina, orduan ere, zenbait taldek, espreski, guztiz kontziente, euskaraz kantatzeko erabaki politikoa hartu zuten. Berdin, 90eko hamarkadan. Orain, berriz, diskurtso aldaketa dago. Horren inguruan jardun dut ikerketan.

Zertan da diskurtso aldaketa hori?

2005ean bertan bada ikerketa bat, EHuko Identitate Kolektiboaren Ikerketa Zentroak eginda, eta, haren arabera, gazteen artean euskalduntasuna ez zen euskaraz hitz egitearekin lotzen, Euskal Herrian jaiotzearekin baizik; alegia, euskaraz hitz egin beharrik ez zegoela. Hortaz, bazirudien identitatearen pertzepzioari buruzko

Huntza taldea.

JAGOBA MANTEROLA / FOKU

aldaketa gertatu zela. Nik musikarien ar-
lora eraman dut gaia, hiru musikari elka-
rrizketatuz. Lagina mugatua da, eta mu-
gatua izanda ere, ikusten da eremu oso
euskaldunetan naturaltasuna aipatzen
dela arrazoi nagusitzat. Testuinguru oso
euskalduna izateak dakar musikariak
euskaraz kantatzea “naturaltasunez”,
bestelako hizkuntza kontzientziarik
gabe. Hori, euskararen egoeran, kezka
iturri izan liteke. Jarrera horrek ondoko
belaunaldietan zer eragin izango duen
ikuskizun da.

“

**Euskaraz kantatzen
da, baina
gaztelaniaz edota
ingelesez kantatzea
berdin-berdin
erabakitzen da”**

Zertan da musikari hauen kontzientzia?

Esate baterako, kontziente dira aurreko
belaunaldiko musikariek egindako hau-
tu politiko eta guztiz kontzienteak ireki
diela eurei euskaraz kantatu ahal izateko
bidea. Eurek, aldiz, ez dute hautu kon-
tzienterik egiten. Harrigarria da eta, era
berean, interesgarria, 2010eko hamarka-
dan gertatu den hizkuntza hautuari bu-
ruzko diskurtso aldaketa horren atzean
zer dagoen, eta beharbada, belaunaldi
berrietan zer etor litekeen.

Euskaraz kantatzen dute hirurek, hizkuntzaren kontzientzia gorabehera.

Bai, bistan da. Joan den urtarrilean, iaz
argitaratutako diskoen zerrenda argita-
ratu zuen *Badok* atariak. Haren arabera,
iaz 211 disko argitaratu ziren euska-
raz, orain dela bi urte baino %5 gehiago.
Hortaz, hortxe da konstatazioa: euskaraz
kantatzen da. Ados. Baina diskurtso al-
daketa ere badago, eta kezka eragile izan
liteke, beharbada.

Zerk aldarazi du diskurtsoaren nora?

Ez dakit, zuzen, zein diren arrazoiak. Al-
daketarik egon den aztertzeraz mugatu
naiz. Horren arrazoiak aztertzekotan,
ikerketari handiagoa egin beharko litza-



"Izarok esan zidan
hizkuntza bat edo
bestea aukeratzea,
gitarra akustikoa
edo elektrikoa
aukeratzearen
pareko zaiola".

teke. Testuinguru politikoak eraginik
izango zuen susmoa dut, baina susmoa
besterik ez da. Ikerketan 90eko hamarka-
dako politika giroaz ere ari naiz, eta hor,
Negu Gorriak-ek egindako hautuaz ere
jarduten dut, hau da, Fermin Muguruzak
egindako hautu militante horretaz. Jon
Andoni Del Amok bere liburuan [*Party
& borroka. Jóvenes, música y conflictos en
Euskal Herria, Txalaparta, 2016*] dio “ko-
munitate kontrakulturala” sortu zela. Del
Amok Negu Gorriak-ek musika estilo ja-
kin bat, politika eta hizkuntza lotu zituela,
eta ondotik, eta hiru osagai horien batu-
ra horretatik, hainbat talde sortu zirela.
Hortxe etorri ziren gero Esan Ozenki dis-
koetxearekin batera sortutako taldeak.
Seguruenera, politika giroari lotuta egon
zen hori dena. Orain, berriz, politika giroa
aldatu denean aldatu ote den hizkuntza
hautuaren ausia, ez dakit. Izaten ahal da,
susmoa dut. Dena den, hizkuntza kon-
tzientzia hura, eta kontzientzia politiko
hura, galdu direla, bistakoa da.

Ondoren zer etorriko den ezin esan, hala ere.

Hori inork ere ez daki. Dena dela, irudi-
tzen zait euskaraz kantatuko dela. Orain-
txe, euskaraz kantatzen da, katea ez da
eten. Egia da, bestalde, euskaraz kanta-
tzen dela, baina gaztelaniaz edota ingele-
sez kantatzea berdin-berdin erabakitzen

dela. Niri, ikerketaren egile naizen alde-
tik, ez dagokit jarrera hori kritikatzeko, ja-
rrera eta diskurtso aldaketa gertatu dela
konstatatzea baizik, eta beharbada, etor-
kizunari begira kezka iturri izan litekeela.

Zertan dira berdin, ezberdin, Izaro, Huntza, En Tol Sarmientoren diskurtsoak?

Oso diskurtso ezberdinak dira hirure-
nak. Eremu soziolinguistikokoak erabateko
eragina du horretan. En Tol Sarmientok,
adibidez, erabaki eta hautu kontzientea
egina du. Iñigo Etxezarreta dute talde-
ko euskaldun bakarra, eta, berak esana
duenez, lehen diskoa argitaratzeko ga-
raian, zenbait kantu euskaraz sartzea
erabaki zuen. Taldekideek ez zuten era-
bakia ulertu, bata zen Extremadurakoa,
bestea Errioxakoa... ez ziren euskaldu-
nak, euren inguruan ez zegoen euska-
rari. Iñigok [Etxezarreta], aldiz, euska-
rarekiko atxikimendua zuen, euskaraz
kantatu nahi zuen: horra erabaki guztiz
kontzientea. Ikerketaren bukaeran esa-
ten dudanez, beharbada eremu erdaldu-
nean euskararen hautua oso kontzientea
da: ingurune erdaldunean euskaraz kan-
tatzeke erabakia hartuz gero, egoera-
ren kontra ari zara, guztiz presente duzu
euskaraz kantatu nahi duzula, hautu ho-
rren arrazoiak eta motibazioak edozein
direla ere.

MONIKA DEL VALLE / FOKU



LUIS JAUREGALIZO / FOKU

"Beharbada eremu erdaldunear euskararen hautua oso kontzientea da". Argazkian En Tol Sarmientoko kideak.

Jarrera eta motibazioak ere aztertu dituzu zure lanean. Bateko jarrera integratzailea eta motibazio sinbolikoa, beste jarrera eta motibazio instrumentala...

En Tol Sarmientoren kasuan, adibidez, jarrera integratzailea da nagusi, motibazio sinbolikoa. Komunitatean integratu nahiak bultzatzen zaitu hautu jakin bat egitera. En Tol Sarmientoren abiapuntuan jarrera eta motibazio hori bistakoak dira, Iñigo [Etxezarreta] da taldeko euskaldun bakarra, berea dugu erabakia, berea euskaraz egiteko nahia. Hautua egin eta gero, dena den, *Musikaren doinua* izeneko kantuak arrakasta handia izan zuen, Euskadi Gaztea-n, besteak beste, eta horren eraginez, Arabako Errioxan ez ezik, Euskal Herrian batean eta bestean jotzen hasi zen taldea. Horrek, taldeko gainerako kideen artean hizkuntza hautua legitimizatzea ekarri zuen. Abiapuntuko jarrera integratzaile eta motibazio sinboliko hori, ondoren, arrakastazko motibazio bihurtu zen. Aurrrera begira, eremu erdaldunetan gartu daitekeen motibazioa izan daiteke. Beharbada.

Zertan dira jarrera-motibazioak Izaroren eta Huntzaren kasuetan?

Izaroren kasua berezia da. Izarok berak asko hitz egin du horretaz hedabideetan,

eta hitz egin izan duen guztietan egonezina sortu du euskal komunitatearen barruan; zati batean, behintzat. Izan ere, Izarok esaten du berdin diola zein hizkuntzatan kantatu, eta behin, elkarrizketa batean, irakurri nion sonoritate alde tik ez dela gauza bera *cuchara* esan, edo *goilare*, eta, hautua egin behar duenean sonoritateari ematen diola lehentasuna. Ikerketarako egindako elkarrizketan esan zidan hizkuntza bat edo bestea aukeratzea, gitarra akustikoa edo elektrikoa aukeratzearen pareko zaiola. Horixe Izaroren hautua, ez dio begiratzeko hizkuntza minorizatuaren alde, gaztelaniaren edo ingelesaren alde egiten duen. Nik neure lan honetan bataren eta bestearen iritziak jaso ditut, baloraziorik egitea ez dagokit. Deigarri gertatzen zaizkidan konstatazioak azpimarratzea, aldiz, zilegi zait.

Hor dugu Huntza...

Huntzak ere naturaltasuna aipatu zuen hizkuntzaren hautua egiteko arrazoitzat. Zioen pentsatu ere ez zuela egin zein hizkuntzatan kantatu. Partez, normala ere bada, alegia, zeure ingurunea guztiz euskalduna denean eta zeure ingurune horri kantatu nahi diozunean, euskaraz kantatzea eta euskaraz kantatu nahi izatea. Hori horrela izanda ere, hautu kontzienterik ez egitea deigarri gertatu

“

Kontziente dira aurreko belaunaldiko musikariek egindako hautu politiko eta guztiz kontzienteak ireki diela eurei euskaraz kantatu ahal izateko bidea”

zait. Kontzientzia gabezia iruditzen zait. Dena dela, hirurak ere kontziente dira euskararen egoera ahulaz, kontziente dira ondoko belaunaldiarengan eragina izan dezaketela, kontziente dira aurreko belaunaldiak egindako hizkuntza hautuak eurengan eragin duela, euskaraz kantatzea bermatu diela. Eta horietaz guztietaz kontzientzia izanda ere, aztertu ditudan hiru kasuetatik bik ez dute euskaraz kantatzeko kontzientziarik! Deigarria zait, bitxia. Bidean zerbait galdu dugula iruditzen zait hizkuntza kontzientziari dagokionean. ●

LILIPA ETA LILIPOPA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

IRAKURLEAK GALDEZKA

Noiz inausi behar dira hortentsiak? aurreko urtetan lore gutxi eman dute...

✍ Elixabet

Hortentsiak otsaila-martxoan aldera inauten dira. Ahal baduzu ilbeheran. Lore gutxi ematea inausketa gogorregia egitearekin lotuta dago. Moztu adarren hirutik bat, zaharrenak, eta besteak oso-osorik utzi. Hurrengo urtean berdin. Moztutakoek adarra berritu egiten dute behe-behetik eta osorik utzitakoak loratu egingo dira, erruz.

.....
Usoak uxatzeko arantza, gezurrezko hontza eta horrelakoez gain ba al da landare edo ukendu edo horrelakorik?

✍ Iñigo

Ez dut horrelakorik ezagutzen. Inori ez diot entzun edo ikusi helburu horrekin landarerik erabiltzen duenik...



Lilipa pozointsua da. Aziendak ez du jaten larrean. Sendagileek goragalea sortzeko erabiltzen dute. Baita azaleko erredurak sendatzeko ere.

Lilipak edo nartzisoak loretan dira. Nabarmen adierazten dute mendeen hartutako bere lurren berri. Neguan loratzen dira, kolore zuri-hori ikusgarritan, eta usaina bafadaka hedatzen dute. Multzoka bizi dira; lurpean erraboila emankorra dute, eta bat zen tokian, urte-tik urtera zabaldu eta zabaldu, sail handiak sortzen dira.

Lilipak *Narcissus* generoko landareak dira. Euskal Herrian, berezkoak, naturalak, hamar bat bizi dira; lorategietan landatutakoek kanpo, jakina. *Narcissus* izena grekotik omen dator, eta narkotiko, ordigarri edo orditzaile adierazten du, bere usainaren lekuko. Osagai organiko bat baino gehiago ditu usain horrek: farnesenoa, beratrola, ozimenoak eta abar. Lurringintzan erruz erabiltzen da, eta osagai gisa sona handia du: nerbioak indartzen eta burua zorrotzen omen ditu. *Narcissus poeticus*, poeten lilipa edo Abaurreagainan pipirripi deitzen dutena da lurrinetarako ezagunenetakoa.

Narcissus jonquilla ere, ilora, esentzia erauzteko erabiltzen da. Ihiaren hostoak dituela dio bere izen zientifikoak, eta hortik bertatik letorke “ilora”, ihi-lora. Hala dio Lakoizketa handiak.

“Aratuste lorea” esaten zaio, baita ere, lilipari. Sasoi horretan loratzen delako, noski; baina eman dezagun aratusteetan mo-

zorrotzen denak hauspotu nahi duen ego nartzizistagatik esaten zaiola euskaraz horrela. Nik, behintzat, makina bat buruzale sumatzen dut, aldamenekoa orditzeraino, mozturro garesti askoekin aratusteak lehor eta zikoitz ospatzen...

Lilipa pozointsua da. “Nartzisina” edo “likorina” esaten zaion alkaloidea du. Aziendak ez du jaten larrean, bai baitaki digestio-aparatuan kalteak eragiten dituela. Sendagileek goragalea sortzeko erabiltzen dute. Baita azaleko erredurak sendatzeko ere. Sendagintzan aipatzen da aldamenean lilipa sorta bat izanez gero lasaitu eta loa errazten duela. Merezi du Pio Font i Querren *Plantas medicinales, el Dioscórides renovado* liburuko lilipari buruzkoak irakurtzea. Bide batez, bertan, euskaraz, “txutxupraka” izena jaso du...

Bere pozoinaren neurria ederki nozitua dute moztu eta liliparekin batera murko batean jartzen diren loreek. Lilipak muzilagoak eta beste substantzia batzuk askatzen ditu ebakitik. Horien pozoinak aldameneko loreek hartuko dituzte, edo uretara erakarriko dituzten bakterioek beste loreak urik hartu ezinik utziko ditu. Inguruan ez du nahi bere edertasuna zalantzan jarriko duenik. Nartzizista da lilipa, buruzalea. Popatik ematen die aldamenekoei. Hortik ote datorkio lilipopa izena? ●

BIBA ARDOAK

TOPA ARDOAREN KULTURA OSASUNTSU ETA HERRITARRAREN ALDE



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Duela 10-15 urtetik aldaketa nabarmena izan du ardoaren industriak munduan: mahastizain eta ardogilearen figura berreskuratzen ari da eta berriro ere mahastira itzultzen ari dira, ardo garbiak eta ekologikoak eginez". Arturo Villanueva Arteaga Biba Ardoak proiektuko koordinatzailearen hitzak dira. Ardoaren kulturaren ematen ari den aldaketa hori Euskal Herrian ere ematea dute helburu. Horretarako batu dira hamalau mahastizain eta ardogile txiki, gurean agroekologiaren baitan sortzen ari den mugimendua ikusita, eraldaketa hori ardora eramateko baldintza egokiak daudela konbentzita. Martxoaren 2an egin zuten proiektuaren aurkezpena Donostiako Tabakalerako Tabakunean.

BANAKETARAKO PROIEKTUA

Euskal Herrian ekoizten diren ardo ekologiko, biodinamiko eta naturalen banaketarako sortu dute Biba Ardoak. Ez du ardorik ekoizten: banaketarako eta lan komertzialerako kooperatiba da.

80 ardok osatzen dute katalogoa, horien artean hainbat jatorri deituratakoak: Arabar Errioxa, Nafar Errioxa, Irulegikoa, Nafarroakoa, Bizkaiko Txakolina eta Getariako Txakolina. Guztiek lantzen dituzte mahastiak eta beraiek dira ardoak egiten dituztenak, proiektuan ezarritako minimo eta bermeak betez. "Giza neurriko proiektuak dira sare honetako ekoizpen guztiak, eta eredu agroekologikoaren aldeko apus-



Martxoaren 2an egin zuten proiektuaren aurkezpena Donostiako Tabakalerako Tabakunean.

tua egin dute". Eredu agroekologikotik harago, gainera, Bibako zenbait ekoizle eredu biodinamikoan dihardute.

SAREA HELBURU

Jatetxe, taberna, kontsumo kooperatiba eta elkarte eta elikadura burujabetzaren alde lanean diharduten bestelako agenteekin saretzea eta dinamikak sortzea dute helburu. Bere bidea hasi berri du proiektuak, eta

pixkanaka, pausoz pauso joanen dira aurrera egiten.

"Janariari garrantzia gehiago ematen zaio orokorrean, badirudi ardoarekin jendeari berdin zaiola. Ez gara ohartzen garrantzia bera duela, eta betiko ardo pozoitu eta kapitalista edaten jarraitzen dugu", dio koordinatzaileak. Hemendik aurrera ez dago aitzakiarik: bibaardoak. eus webgunean aurki daiteke proiektuaren gaineko informazio guztia. ●

AGENDA

ELKANOREN MUNDU BIRAREN V. MENDEURRENA: ZER DUGU OSPATZEKO? ZER DUTE EZKUTATZEKO? hitzaldia

ARGIA izenburu bereko erreportajea argitaratu zuen Axier Lopezek emango du hitzaldia.

- 🕒 **Martxoak 24** 18:30ean
- 📍 **Zumarraga** Zelai Arizti kultur etxea
- 🕒 **Martxoak 31** 19:00etan
- 📍 **Iruñea** Katakarak
- 🕒 **Apirilak 3** 19:00etan
- 📍 **Bermeo** Kabitxa
- 🕒 **Apirilak 21**
- 📍 **Donostia** Marruma
- 🕒 **Apirilak 26**
- 📍 **Bergara** Gaztetxea

EZ GARA NEUTRALAK liburu aurkezpenak

Liburuaren egile Gorka Bereziartua arituko da.

- 🕒 **Apirilak 30** 11:30ean
- 📍 **Leioa** Unibertsitatean

Oharra

Koronabirusa dela-eta, ARGIAk gizaratean gaixotasuna ahalik gutxien zabaldu dadin laguntzeko, lan funtzionamenduan hainbat erabaki hartu ditugu. Hurrengo astean azalduko dizuegu Komunitatea atalean.

ARGIA saiatuko da ahalik gehien bere ohiko informazio zerbitzuari eusten. Aurrera begira, astekaria garaiz jasotzeko izan daitezkeen zailtasunen aurrean, oroitarazten dugu astekaria PDFan jasotzeko aukera badagoela. Horretarako, eman izena www.argia.eus/buletinak helbidean.

argia.eus/buletinak

PRAKTIKALDIA ARGIAN



DANI BLANCO

Maria Ortega zorrotz ari da gaurkotasuneko gaiak lantzen Argia.eus webgunean.

Bekadunak ez dira kafea zerbitzatzeko

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Sinadura berriak agertzen dira lau hilean behin ARGIAren webgune-ko albisteetan. “Hara, bekadun berriak izango dira hauek”, argia.eus-en ibiltzeko ohitura baduzu, behintzat, izango zenuen erreakzio hori noizbait. Kazetaritzaren edo ikus-entzunezkoen munduan murgiltzen ari denarentzat aukera polita izan daiteke euskal hedabide bat barrutik ezagutu eta bertan bere lehen lanak egiteko.

Maria Ortega Zubiate markina-xe-meindarrarena da gaur egun topatuko duzun sinadura. Lehen Bilbo Hiria irratiari aritu zen praktikak egiten eta orain, Gradu Amaierako Lana egiten ari den bitartean, prentsa idatzian lan egitea zer den probatu nahi izan du. Praktikaldi honetan, batez ere, ARGIAren webgunea elikatzeaz arduratzen dira bekadunak. Egunerokoak eskaintzen dituen albisteak osatzen dituzte, lantaldeko erre-daktoreek beren zuzenketak egin eta aholkuak ematen dizkiote eta sarean publikatzen dira.

ZERGATIK SARTU AUKERETAN ARGIA

Leku askotan egin daitezke kazetaritza praktikak. Zergatik aukeratu zenuen ARGIA? Galdera hori egin diot Ortegari,

niri ere kanpotik begiratzea tokatzen zaidan kasuetan sinesgarriagoa egiten baitzait norbaitek bere esperientziatik kontatzea. Hala dio: “Uste dut ARGIA aukera ona dela praktikaldia bertan egiteko. Euskal kazetaritzako erreferentetako bat izateaz gain, hurbileko tratua dago lankideen artean”. Lasarte-Orian dagoen taldea ez da handia, baina taldea da. Ekipoa. Eta kazetaritzako praktikak egiteaz gain, alegia, artikulak, errepor-tajeak edo elkarrizketak idazteaz gain, ikasten da taldean lan egiten. Ezagutzen da benetan ekipo batek nola funtzionatzen duen. Astekari bat sortu eta eskue-tan izateraino ze kate dagoen eta katean lan egitea zer den. Maketazioa, diseinua, inprenta, publizitatea eta hil bukaeran soldatak ordaindu ahal izatea.

Ortegak dio berak “lotsa galtzen ikasi” duela. Nola idatziko zuen, zer esango zioten erredaktoreek, zuzentzaileek, horiek zituen hasieran zalantzak. Baina “geroz eta erosoago” sentitzen dela aitortu digu.

Horretarako dira praktikak. Bakoi-tzak bere lotsei eta beldurrei aurre egi-teko aukerak, eta aukera aprobetxatuz gero, asko ikasiz lan-mundua ezagutze-ko eta heltzeko lekuak. ●

Poveglia madarikatua erabilgarri dago



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Veneziako urmaela, 1570-1630. Izurri bubonikoak gogor jo zuen zonaldea hainbat hamarkadatan eta urmaeleko 166 uharteetako batzuk, zehazki Venezia eta Lidoren artean dagoen Poveglia uhartea, gaixoak koarentenan isolatzeko eta hildakoen gorpuak botatzeko erabili zituzten.

Lehenago ere Poveglia populatua egon zen eta hainbat erabilera izan zituen. Uharteko lehen biztanleak Euganei izeneko protoitaliarrak izan zirela uste da, duela 4.000 urte inguru hedatu baitziren Veneto eskualdean. Idatzizko lehen aipamena K.o. V. mendekoa da: Alariko eta Atilaren inbasioetatik ihesi, eskualdeko hainbat biztanlek Poveglian bilatu zuten babes. Beste dokumentu batean jasotzen denez, 864. urtean ere 200 bat esklabok irlara ihes egin zuten.

1379an, Genova eta Veneziaren arteko gerra piztu zenean, agintariek Poveglia husteko agindua eman zuten, gotorleku militar bat eraikitzeko; irlan ez zen inor biziko hurrengo bi mendeetan.

Baina ordurako izurri bubonikoaren lehen uholdeak Venezia astindua zuen. 1348an iritsi zen izurria hirira eta biztanleen %50 hil zuen. Veneziarrak konturatu ziren gaixoak eta hildakoak besteengandik bereiztea ezinbestekoa zela. Horregatik, XVI. mende amaierako izurriak iritsi zirenean, berehala erabaki zuten Poveglia giza zabortegi bihurtzea.



POVEGLIAKO ERAIKIN ABANDONATUAK GAUR EGUN.

Inor gutxi itzuli zen onik lehorra berrogeialdia gaintuta. Milaka eta milaka gorpu erre zituzten bertan.

Veneziarrak ez ziren izan isolamendu koloniak uharteetan antolatzen baka-rrak. Gurean ere irtenbide bera bururatu zitzaion izurrialdi berean; esaterako, 1578an, Lekeition, gaixoak San Nikolas uhartean isolatzea erabaki zuten.

1777an, Veneziako osasun magistratuak, Poveglia kontrolpean hartu eta Ellis uharte moduko bat egin zuen. Veneziako portuan sartu nahiz zuten ontzi guztiek handik pasa behar zuten, gaixotasunen prebentzioa helburu zuen azterketa zorrotz bat gaintzeko. 1790eko hamarkadan bi ontzik ez zuten kontrola pasa eta Poveglia, berriro ere, koarentena gune bihurtu zen, XIX. mende hasieran ospitalea itxi zuten arte.



MARCO SECHI

XX. mendean gaixo mentalak hartzeko egokitu zituzten uharteko eraikinak eta horretarako erabili zituzten 1968a arte. Gaixoein egindako tratamendu eta esperimentu basatiak azaleratu ziren, eta Poveglia izurritsuaren legenda beltza areagotu zuten eroetxeko izugarrikeriek.

Orduraz geroztik irla abandonatuta dago, baina bertako mamuak ugaltu egin dira eta munduko toki madarikatu ezagunenetakoa da gaur egun. Ahaleginak egin dituzte toki pribilegiatuan dagoen lur zatitxo berrir erabiltzeko, baina ez da lortu proiektu bat bera ere abiaraztea; 2014an enkantean salgai jarri zuten, baina eskaintza bakarra baxuegia izan zen. Koronabirusak ekarriko al du Poveglia berriro erabiltzeko proposamena eta legenda beltza elikatze bidea? ●



MENORCA.INFO

Balearren estepako arbasoak

Duela 4.000 urte inguru, Ekialdeko Europako estepako abeltzainen uholdeak Iberiar penintsulara iritsi ziren eta aldaketa genetiko eta sozial nabarmenak eragin zituzten. Populazio nahastu berri hura izan zen Brontze Aroan Balear Uharteak jendeztatzen lehena.

Horixe ondorioztatu du *Nature, Ecology and Evolution* aldizkarian argitaratu

berri den nazioarteko ikerlan genetiko batek. Brontze Aroan Mallorcan, Menorcan eta Formenteran bizi izan ziren giza-kien hiru genoma aztertuta, Mediterraneo mendebaldeko genoma sekuentzia zaharrenak berregitea lortu dute.

Gainera, Mediterraneoa Brontze Aroan merkataritza nahiz kultura trukeko bide eraginkorra zela berretsi du ikerlanak. ●

GEMA INTXAUSTI, ARTISTA

“Ez diot beldurrik ezezagunari”

Entre la multitud, observando el arresto Gema Intxausti (Gernika-Lumo, 1966) artistak pasa den otsailean Gasteizko Artium museoan inauguratu zuen erakusketaren izenburua da. Titulu hori Alfred Hitchcock-ek bere pelikula batean egiten duen kameo baten deskribapenetik dator, bere filmografia oparoan egin zituen mota horretako agerpen ugarietako bat; izan ere, Intxaustik zinegile honen ehunka kameo ditu zerrendatuta hitz larriz eta kolore gorritz marraztutako paper zurietan.

Artiumekoa da Gema Intxaustiri museo batean eskaintzen zaion bakarkako lehen erakusketa. Berarekin errepasatu dugu 1990eko hamarkadan hasi zuen ibilbide artistikoa, Pasolini, Hitchcock, Janeth Frame edo Silvia Plath bezalako erreferenteak bidelagun hartuta eta fotomatoietan ateratako argazkiak, zeloekin egindako eskulturak eta aipuz beteriko marrazkiak areto hauetako hormak eta zokoak estaltzen dituztelarik.

Kafetegi batetan imajinatzen zaitut, papera eta lapitza eskuan dituzula eta zure proiektuetako bati hasiera ematen. Horrela izaten al da?

Bai, izan liteke, uste dut noizbait aipatu izan dudala *The Runner's Cut* (2012) obra adibidez horrela hasten dela. Kasu honetan nire buruan jada existitzen zen proiektua eta banindoan pentsatzen eta birpentsatzen zer zuen soberan eta zer zen falta zitzaiona. Eta hori guztia kafetegi batean edo beste batean egiten nuen, izan ere, obra honekin hasi nintzen garaian ez neukan estudiorik. Uste dut baldintza honek –estudioa ez izateak– behartzen zaituela beste modu batez lan egiten, kanpoalderago, estudio batek eman diezazukeenetik kanpora, eta baldintza honek proiektuak garatzeko bestelako modu batera eramanez.

Alde horretatik, pasealdiek eta eguneroko gauzen gaineko behaketek balio dizute sortzen hasteko.

Egia esanda bai. Nik uste kalean behatzeko joera aktibo hori oso presente izan dudala betidanik. Agian orain, eta denborarekin, nire obrarekiko agerikoagoa bilakatu den ezaugarria da. Egia da toki batean nagoenean begira-

tu egiten dudala, behatu egiten dut eta hori guztia ez dut bakarrik esperientziaren, sentimenen edo pentsamenduen bitartez egiten, baizik eta distantzia batetik begiratzen, beste pertsona baten lekuan egongo banintz bezala, ia lekuko bat banintz bezala. Oso Hitchcockiarra da esaten ari naizena, ezta?

Urtetan estudiorik gabe egon zara. Esan liteke garai batean fotomatoia bilakatu zenuela inprobisatutako estudio.

Nolabait esatearren bai. Lehen fotomatoia Bilboko Abando tren geltokian egin nuen 2000. urtean, toki publiko batean, Bilboko erdigunean. Ondoren Londresen proiektua berreskuratu nuen eta gauza bera egin: toki publiko bat erabili akzio hau egiteko. Beranduago ere obra hau erre-kuperatu nuen, izan ere, lau toki ezberdinetan egin diren piezak dira, Bilbon, Madrilén, Londresen eta Berlinen. Gainera, oso toki enblematikoetan ateratakoak dira, esaterako Madrilgo Atocha tren geltokian atentatuaren ondoren eta Berlingo *Checkpoint*-ean 2016. urtean.

Beraz, lehenagoko obrak erre-kuperatzea atsegin duzu, agian amaitu gabe utzi zenituen lanak.

Guretzat ez dago ordutegirik, eta ez dago urtarorik, ez dago biharkorik. Ez gaude etxean inork noiz deituko zain, ekoizten jarraitzen dugu eta aukera dagoenean pieza aurkezten da”

Bai, zalantzarik gabe. Behin Eva Lootz artistari egin zioten elkarrizketa batean komentatzen zuen berak proiektuak pentsatzen eta gauzak bukatzen egiten zuela lana. Noizean behin, begirada atzera bota eta inoiz bukatzeko astirik izan ez zituen lanak hartu eta errekupe ratzen zituela. Eva Lootz garai hartan asko gustatzen zitzaidan artista zen eta oso identifikatuta sentitzen naiz beraren lan egiteko moduarekin.

Erakusketan ikus daitekeen bezala, fotomatoien lana 2016an bukatu zenuen, proiektua hasi eta hamasei urte geroago.

Bai. Berlinen, gainera, fotomatoi ugari dago oraindik ere, tiratan eta zuri beltzean inprimatzen duten horietakoak. Erakusketan ikus daitekeen bezala, Berlinen egiten dudana da Bilbon hasi nuen seriea bukatzea. Eta erretratu batekin bukatzen dut, izan ere, serie honetako lehen fotomatoiak erretratua ukatu egiten zuen, lepotik beherako argazki batekin.

Zure ibilbide eskultorikoa garbitzeko zapiak eta zeloak material nagusi gisa erabiltzen hasten duzu. Eskultura hauek jada nahiko ikoniko bilakatu dira hemengo testuinguru artistikoan, baina garai hartan nolako harrera izan zuten?

Zapiekin lehen pieza Angel Badosek Artelekun eman zuen tailerraren ondoren egin nuen, 1989ko udan. Nire ingurukoek izan zuten erreakzioei buruz, egia esan, ez dakit erantzuten... Garai hartan ez nekien pieza horrek zer ibilbide izango zuen, eta testuingurua ere kontuan izan behar da: Ana Laura Alaez, Miren Arenzana eta Alberto Peral artistak lanean ari ziren eskultura egiten, belaunaldi berekoak gara. Gutariko bakoitzak perspektiba ezberdin batetik lantzen zuen eskultura, aurreko urteetako eskulturak zekarren metal eta materialen erabilera alde batera utziz. Garai hartan, gogoan daukat nazioarteko artisten erakusketak ikusten genituela. Bilboko Arte Ederren Museoan, esaterako, eskultore britaniarren edo alemaniarren lanak, eta hauek ere inspiratzaileak izaten ziren. Uste dut faktore askoren gehiketa izan zela, nik orduan ez nuen kontzientziarik, ez nuen esaten "90eko hamarkadako artista naiz", ez nintzelako, distantziak eta denborak ematen dute





horrelako hausnarketak egiteko aukera. Nik ez nuen epe ertain-luzera pentsatzen, momentuan egiten nuena egiten nuen eta puntu. Orain egia da urte dezente pasa direla eta beste begirada batekin ikusten dela garai hartan gertatutakoa.

Eta zeloa material eskultoriko gisa erabiltzeko erabaki hori, nolatan bururatu zitzaizun?

Zeloaren historia oso sinplea eta emozionala da. 1990-91 urte bitartean egin nituen marrazki batzuetatik abiatzen da, Bilboko Andreu lentzeria dendan erakutsi nituenak. Garaiko emakume artistak gonbidatzen gintuzten bertan gure lanak erakustera eta nik hara marrazki batzuk eraman nituen, horien artean zeloarekin egindako batzuk. Eta zer-gatik zeloa? Ba Angel Badosek, tailer horretan, liburu bana oparitu zigun parte hartu genuen artista guztioi eta liburu hori arkatzez azpimarratuta egon ordez, zeloarekin azpimarratuta zegoen. Eta nik ezin nuen zeloa besterik ikusi, batzuetan ezin nuen testua irakurri, zeloa bakarrik ikusten nuelako eta bere testuingurutik at zeloak hartzen zuen formak, emozionalitate hark txunditu egin ninduen. Ekintza sinple hori, jarrera hori, asko gusatu zitzaidan.

Badakigu lehiaketa eta beka ugarritar aurkeztu eta ezetza jaso duzun "ez" horiek guztiak gordeta dituzula karpeta batean, baina 2018an Gure

Artea saria jaso zenuen, Euskal Herrian ematen den arte alorreko sari garrantzitsuena. Espero al zenuen? Ez, ez nuen espero, eta are gutxiago nire adinean ibilbide artistikoaren saria jasotzea. Ibilbide artistikoari baino, pertseberantziaren sari gisa hartu nuen nik. Edozein artistak jakin badaki nolako zaila den epe ertain-luzera artean lanean jarraitzea. Zailena ez da hastea, jarraitzea baizik, bizitza are eta konplikatuagoa bilakatzen denean, eta zure gain hainbat erantzukizun dituzunean.

“

*Bizi ditugun
krisi-garai hauetan
badirudi duintasuna
irabazi beharreko
balioa dela”*

Artistak jarraitzen al du menpe egoten sariak, lehiaketek edota bekek ematen duten legitimazio-sistema horretatik?

Zure mundu emozional eta ekonomikoarekin zure burua nola administratzen duzun, horren araberakoa da; hau da, pertsona batek asteburua kanpoan igarotzea aukera dezake eta zuk berriz, dirua papera erostera bideratzen duzu. Guretzat ez dago ordutegirik, eta ez dago urtarorik, ez dago biharkorik. Ez gaude etxean inork noiz deituko zain, ekoizten jarraitzen dugu eta aukera dagoenean pieza aurkezten da.

Eta zein da zure buruari artista bezala inposatzen diozun errutina?

Izan badut errutina bat. Proiektu bat egin behar dudanean lan asko egiten dut, horretan jartzen naiz buru-belarri, badaki-

dalako ondoren guztia okertu daitekeela. Horregatik hasieratik oso indartsu has-ten naiz lanean eta, nahiz eta ez ari objektu fisiko bat egiten, ez dago lan egiten ez dudan egunik; baina uste dut hau artista guztiok konpartitzen dugun ezaugarria dela. Begirada beti dago hor, lanean, pentsamenduari forma ematen, sortzen. Urteak egon zaitezke ezer ekoizti gabe, baina lanera bueltatzen zarenean ez duzu azken lana utzi zenuen bezala hartuko, intelektualki beste toki batean zaudelako. Prozesua eskuzkoa baino gehiago da intelektualak.

Erakusketa honetan batez ere marrazkiak daude, testuz lagundutako marrazkiak, aipuekin, esaldi ezberdinekin. Zeri eta nori buruz hitz egiten diguzu marrazki-testu hauetan?

Gogoan dut hitz egiteko eta argudiatzeko zailtasuna nuela gazteagoa nintzenean. Ez zen ezer esateko ez nuelako, hitzak jartzeko zailtasuna nuelako baizik. Eta niretzat garrantzitsua zen, izan ere, nik hitz egiten ez banuen besteek niregatik hitz egiten zuten; eta orduan esaten zuten nire piezak hauskortasunari, biologiari eta naturari buruzkoak zirela, eta hori ez zen inondik inora horrela. Besteek hitz egitea ondo iruditzen zait, gertatzen dena da nire diskurtsoa ere falta zela. Horregatik galdu behar nuen ahoz-kotasunari nion beldur hori. Eta keinu txikiekin hasi nintzen, hasieran poliki, han-hemenka nire obretan testu laburrak sartuz; eta pixkanaka testua agertuz doa, presentzia handiagoarekin. Eta ahoz-kotasuna presenteari bihurtuz doa erakusketa honetan ikus daitekeen bezala. Kontrara, eskulturak presentzia galtzen du.

Esan dezakegu ahoz-kotasuna dela erakusketa honen muina.

Erakusketako komisarioek, Beatriz Herráez eta Xabier Arakistainek ahoz-kotasunaren kontzeptua proposatu zuten erakusketa honen erdigune bezala eta ni ados nintzen. Uste dut kontzeptu horrek oso ondo laburbiltzen dituela bertan aurki daitezkeen obra guztiak. Unframed Jane pieza adibidez, zirkoa eta Hitchcocken kameoena, *The Corner Speech* pieza, Pasoliniren aurkako kereilen obra, baita *Who do you think you are?* ere, migrazioari eta honek errealtate sozial, politiko eta ekonomikoarekin duen harremanaren gainean hitz egiten duen pieza... Guztiak dute narratibitate hori amankomunean.

Zirko itxura duen eskultura baten gainean gaude eserita orain. Azaldu iezaguzu.

Pieza honek *Unframed Jane* du izenburua, Janeth Frame idazlearen izena osatzen duten hitzekin jolas bat. Pieza honek hainbat etapa izan ditu, erreferentzien eta geruza ezberdinen batuketak da. Proiektua duela urte asko hasi zen, Alfred Hitchcocken kameoekin pieza bat egin nahi nuela pentsatu nuenean. Lehen bertsioa 2000-2001. urtean egin nuen. Urteak igaro ahala, eta dagoeneko testuetan eta ahozkotasunean arreta gehiago jarrita, berriro agertzen dira. Truffautek Hitchcocki buruz esaten duenaren arabera, hau bere pelikuletan erruaz eta legeak jazarritako gizon errugabeaz ari da. Eta niretzat hori hain zen egunerokoa... Hau da, errua, errugabetasuna eta legearen arteko gorabeherak gaur bizi ditugun krisi-garai hauetan, non badirudien duintasuna irabazi beharreko balioa dela. Horretan oinarrituta eta ideia honi bueltaka, Tabakalerak 2016an egin-dako gonbidapenarekin zirku hau erai-ki eta pieza konplexuagoa bilakatu zen.

Eta honekin esan liteke berriz ere eskulturara bueltatzen zarela

Bai, fotomatoien proiektuarekin urteak eman ondoren eta marrazkietan gehiago zentratuta, berriro ere eskultura egin nuen zirku honekin. Baina nire buruan ez dago eskultura egiteko nahia, eszenografia bat egiteko baizik. Eta jakin gabe zergatik, jakin banekien eszenografia horrek zirku bat izan behar zuela. Hortik aurrera, lanean hasi eta dena elkartzen hasi zen, gorputza hartzen eta pieza geruzaka osatzen, aurreko beste pieza batzuei ere keinuak egiten.

Eszenografia honetarako gidoi bat ere idatzi zenuen.

Bai, horrela bide ematen diot ekintza performatiboari, proiektu honen beste geruza bat gehiago. Amaia Urrea eta Leire Olaran artisten laguntza izan nuen ber-auru egiteko eta Bilboko La Teller galerian aurkeztu zen. Esan daiteke metamorfosi pieza bat dela. Marrazki bilakatzen den ideia, gero eszenografia bilakatzen dena eta ondoren akzioa eta antzeztua izateko gidoi formako lan elementua.

Nolakoa izan zen norbaitek zuk idatzitako gidoia interpretatzen ikustea?

Batzuek performance deitu izan diote, baina niretzat laburmetraia da. Grabatuta daukat, eta egunen batean uste dut editatu eta muntatu egingo dudala. Pix-



ka bat sufritzen duzu, esperientzia berria zen niretzat, baina gustatu zitzaidan.

Fabrikakoa bezalakoa da, seriean egin-dako lana.

Erakusketa honetan dauden marrazkietara bueltatuz, dozenaka marrazki-testu daudela ikusten dugu, badirudi marrazki-paisaia batean murgiltzen ari garela. Imajinatzen dut lan asko dagoela honen atzetik.

Kalkatzea besterik ez da. Lana pentsatzea da, bestea lan mekanikoa besterik ez da, ia ez daukat pentsatu beharrik. Marrazki asko dago, bai, baina ez dira independenteak, ehun-ka kalko dira, lau aldiz errepikatuak eta ingelesez eta gaztelaniaz idatziak. Kasu honetan, Truffauten liburutik eta Interneteko informaziotik hartutakoak.

Bukatzeke, bidaiaren ideia ere oso presente dago zure obran ariketa bezala, adibidez, zure aita

Idahora artzain joan zeneko argazkia abiapuntu bezala hartzen duzun lanean.

Hurbileko eta urruneko ingurunearekin ditugun harremanak asko interesatzen zaizkit, beti gustatu izan zait. Bidaiaren gaia beti interesatu izan zait, inguru hurbiletik kanpo gertatzen zen guztia abentura zoragarria iruditzen zaidalako. Ni ez

naiz errutinazko pertsona, ase arte errepikatzen naizen arren, ez dut nire ingurutik ateratzeko beldurrik, eta besteari, ezezagunari ere ez diot beldurrik. ●

“

Edozein artistak badaki zein zaila den epe ertain-luzera artean lanean jarraitzea. Zailena ez da hastea, jarraitzea baizik”



LIBURUA

Negarretik jolasera



MALKOAK

SIBYLLE DELACROIX

Ilustrazioak:

SIBYLLE DELACROIX

Itzulpena:

MIREN AGUR MEABE

26 ORRIALDE, HAURRENTZAT
TTARTALO, 2019

XABIER ETXANIZ ERLE

Bitxia benetan Ttarttalo etxeak argitaratutako liburu hau. Nork egiten duen negar, nolakoak izaten diren malkoak, malkoek zer sortarazten diguten... kontu horiek eta beste batzuk azaltzen zaizkigu Sibylle Delacroixen liburu hunkigarri honetan.

“Batuetan, bihotzean min daukagunean, begiek gainezka egin, eta negarrez hasten gara.” Horrela hasten da malkoen inguruko kontakizun hau. Testu laburrez eta orri osoa betetzen duten irudiez osaturiko liburu. Egileak lapitzez eginitako ilustrazio errealisten bidez, askotan gizakiaren zati bat –begien ingurua, aurpegia...– marraztuz, lortzen du gure arreta guztia puntu zehatz batean zentratzea, sentimendu batekin bat egitea.

“Edonork egin dezake negar. Neskek, mutilek”, diosku, ezkerreko orrian bi

malko isurtzen ari den neska eta eskuinekoan gauza bera egiten duen mutikoa erakutsiz. Baina haurrek bakarrik ez, helduek ere egiten dute negar, baita krokodiloek ere... eta “badira negar egiten duten zuhaitzak ere”.

Malkoak hau haurrari kontatzeko moduko liburu da. Ez du istorio bat azaltzen, egoera bat baizik, baina amaieran ikusi ahal izango dugun bezala, kontaktuz guztia haur bati zuzenduta dago, negarrez ari den bati. Eta egileak, malkoei eta negarrei buruz azalpen guztiak eman ondoren, alaitasunerako eta jolaserako gonbita egiten dio haurrari. Gainera, gonbit horrek, “Eta orain, arindurik, prest gaude kanpora itzultzeko”, bide ematen dio kolore ugariz ilustraturiko amaiera zoriontsuari.

Liburu sinplea da *Malkoak*; gauza ba-

ten ingurukoa, malkoen eta negararen ingurukoa, eta haur txiki bati azaltzeko moduko obra. Testu gutxi, ideia bakar batzuk, denak erlazionaturik eta orden batean, amaiera baten bila. Negarrez ari den haurra kanpora irten dadila bere lagunarekin jolastera. Sinplea esan dugu, baina ez horregatik landu gabea. Egileak ederki lortzen du erritmo egokia, ideia batetik bestera salto egitea irakurlea, negarrez ari den haurra bezala, lasaitzeko. Eta helburu horretarako hitza eta irudia erabiltzen ditu, bien arteko mezua plazaratuz.

Haurrari kontatzeko moduko liburu dela esan dut album goxo, hunkigarri hau. Ziur bainaiz altoan hartu eta etxean lasai, heldua eta haurra liburuko orrietan barnerratz, une goxo eta atsegina igaroko duzuela. ●



MUSIKA

Doinu bortitzak



JOXI UBEDA GOIKOETXEA

Rodeo (2017) eta *Dilmun* (2018) disko luzeak kaleratu ondoren, *Ezherrian* iraupen laburreko lana osatu du Zestoako Rodeo taldeak. Lau kanta eta sarrera moduko beste bat entzun daitezke, binilozko disko batean eta CD batean, bi euskarrietan argitaratu baitituzte, eta biak batera eskura daitezke *Ezherrian* lan berriarekin.

Aurreko diskoen jarraipena da, stoner-rock egiten jarraitzen dute, desert-rock eta post-rock ukitu batzuekin, baina kanta berriek rock kutsu handiagoa dute, taldekideek beraiek azaldu dutenez: "Oraingo honetan soinu klasikoagoetara jo dugu. Instrumentu guztiek ukitu ezberdinen bat dute aurreko lanekin alderatuz gero, orokorrean rockero edo *old school* ukitua dute instrumentu guztiek".

Doinu indartsuak, sendoak, trinkoak, potoloak eta bortitzak dira, distortsioa da nagusi, baina era berean melodiak zaintzen dituzte, ahotsetan batez ere. *Jainkoak*, *Belaunaldi galdua* eta *Herio* kantekek erritmo bizia dute, *Ezherrian* kanta astunagoa da eta *Intro* sarrera moduko pieza lasaia da.

Kanten bidez, argi eta zuzen mintzo dira bidegabekeriez, zapalkuntzaz, agintarien kontrolaz, alienazioaz, eta horri guztiari aurre egin behar zaiola diote: "Gure ez diren etxeetan lo. Gure ez diren tresnekin lan. Behin eta berriz zapalduak. Behin eta berriz engainatuak. Ezjabeak. Aberri-rik gabe jaioak. Geurea eraikitzaera kondenatuak" (*Ezherrian*); "Jainkoak sortzen, bideak moztzen, etekinak lortzen,



EZHERRIAN

RODEO

BONBERENEA EKINTZAK, 2020

sormena itotzen. Kontuz, ez itsutu, zure begiak ireki itzazu" (*Jainkoak*).

Mikel Illarramendi (ahotsa eta gitarrara), Ortzi Alberdi (gitarra eta koruak), Beñat Subinas (baxua) eta Oroitz Urbietta (bateria eta koruak) ederki aritzen dira beren musika tresnekin, eta energia eta kermen handia transmititzen dute kanten bidez. Haien jendaurreko emanaldietan ezin hobeto suma daiteke hori guztia. Iaz berrogeita hamar bat jendaurreko emanaldi egin zituzten, eta aurten ere asko egingo dituztela ematen du. Batzuk egin dituzte jadanik, urteko lehen asteetan, eta hurrengoak izango dira Tolosako Bonberenean (apirilak 4), Donapaleuko gaztetxean (apirilak 18) eta Amurrioko Burubio kultur elkartean (apirilak 24). ●



Hibridazio apokaliptikoa

DABI PIEDRA BILBOKO EUSKARAREN ETXEA

Aro berriari ekin dio Euskararen Etxeak, Bilboko San Inazio auzoan, azalean eta mamian aldaketak eginda. Publiko euskaltzale eta kulturazalea erakartzeko asmoz, Hi(zki)bridoak izeneko zikloa antolatu dute, literatura-
ren eta ahozkotasanaren inguruko zuzeneko emanaldiak biltzen dituen egitaraua. Oraingo, bost hitzordu iragarri dituzte, maiatzaren bukaerara arte.

Zikloaren estreinaldia Itxaro Bordari eta Ibon RGri egokitu zitzaizen. Arte adierazpideen arteko mutazioen espazioa dira Hi(zki)bridoak, aldaketarik gabe ez baitago aurrerabiderik. Eboluzioaren giltzarria da mutazioa. Itxaro Borda eta Ibon RG, behintzat, mutazio perfektura heldu ziren, ahotso, poesia eta musika uztartzen dituen *Buztinezko poemak* emanaldian.

Apokalipsia, hondamendia, munduaren amaiera deskribatu zuen Itxaro Bor-

dak, eszena beldurgarriaren poesiazko amildegian. Badator katastrofea, eta ez dugu ohartu nahi. Otsail amaierako ostegun arratsalde euritsu bateko giro ilunean, publikoa ia oharkabeen murgildu zen giro apokaliptikoan. Bien bitartean, Ibon RGren soinu elektronikoek ezinegonareagotzen zuten.

Jende garaikide harroputza konturatzaren denerako, berandu da. Kaosak hartu du mundua, gizartea desegin da, gizakia da gizakiaren etsaierik amorratuena. Gutxi duenak ezer ez duenari eraso. Izurria nonahi hedatu delarik, komunikabideen eta gobernuen hitzak sinetsi behar al ditugu? Halako batean, Itxaro Bordaren hitzek gaurkotasanera jauzi egin dutela dirudi. Zer esanik ez, zabortegia aipatu duenean, “plastikoaren kosmografia adoratuaren” ondorio gaiztoa. Izurri hilgarriak eta zabortegi hiltzaileak

BUZTINEZKO POEMAK BILBOKO EUSKARAREN ETXEAN

dira egunotan berri nagusiak, hain gertu dugu apokalipsia?



Gure gizartea astintzen duten gaiak agertzen joan ziren, bertsoz bertso, simbolismoz jantzitako lerroen azpian mundu errearen ajeak tartekatuta. Boterea, aberastasunaren banaketa, teknologia, etorkinei ematen diegun tratua zakarra.

Hainbeste tragedia eta hondamendi, sufritzera etorri al gara Euskararen Etxera? Bada, ez. Itxaro Bordak poesia hutsez eszenarik harrigarrienak eraiki eta begien aurrean jartzeko duen trebetasuna gozamen hutsa da. Fantasiatzko giroak zein gaur-gaurko kezka, dena bikoain josia. Musika elektronikoaz askorik ez dakigunontzat, Ibon RG sintetizadoreari zukua ateratzen ikustea, are gozamen handiagoa. Hi(zki)bridoak zikloaren hurrengo hitzorduaren zain gaude, ea zer ezusteko dakargituen. ●



Puzzlea

KOKA EZAZU PIEZA BAKOITZA DAGOKION TOKIAN ETA FERNANDO MENDIOLAK, HISTORIALARIA ETA UNIBERTSITATEKO IRAKASLEAK, ESANDAKO ESALDI BAT IRAKURRIKO DUZU.



Sudokuak

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

		3	2					
	8		7	5		1		
	7	5		9	1		2	
	3	4	6		7		9	8
	1	6	5		9	2	3	
9	5		3		8	6	1	
	6		1	3		9	4	
		9		7	6		5	
					2	3		

ERRAZA


			4		2	7	6	
	4			9				
		6		1	5		4	
9				3	4	5		
4								7
		5	2	7				6
	9		1	4		3		
				2			7	
1	3	5		8				

ZAILA

5x5

ZE HARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Geun, gandu. 2. Joera. 3. Ponpa.
4. Belarra ebakitzeko lanabesak. 5. Oratuz.



Hizki berak

OSA ITZAZU HITZAK FALTA DIRENAK HIZKI BERAK DIRELA KONTUAN IZANIK, HORI BAI, HURRENKERA EZ DA ZERTAN BERA IZAN.

1				T	A	L	D	I
2	B				T	S	U	A
3	L	E				T	I	O
4	P	R	O				T	U
5	H	O	B	E				N
6	S	I	N	P	L			

EBAZPENAK

1	9	3	2	6	4	7	8	5
2	3	4	6	1	7	5	9	8
3	1	6	5	4	9	2	3	7
4	8	2	7	5	3	1	6	9
5	4	1	9	8	2	3	7	6
6	7	6	8	1	3	5	9	4
7	5	9	4	7	6	8	2	3
8	2	7	1	6	5	4	9	3
9	6	3	8	5	1	7	4	2

ERRAZA

1	5	9	4	8	2	7	6	3
2	3	4	6	1	7	5	9	8
3	1	6	5	4	9	2	3	7
4	8	2	7	5	3	1	6	9
5	4	1	9	8	2	3	7	6
6	7	6	8	1	3	5	9	4
7	5	9	4	7	6	8	2	3
8	2	7	1	6	5	4	9	3
9	6	3	8	5	1	7	4	2

ZAILA

PUZLEA: "FRANKISMOA BEZALAKO DIKTADURA BATEAN DENA DA ERREPRESIOA, ARAZOA DA NOLA NEURTU ERREPRESIOA HORI, DIKTADURAREN LEHEN GARAIA OSO GOGORRA IZAN ZEN." **5X5:** 1. LAUSO, 2. AIHER, 3. UHAGA, 4. SEGAK, 5. ORAKA. **HIZKI BERAK:** 1. EKITALDI, 2. BIKETSUA, 3. LEKEITIO, 4. PROIEKTU, 5. HOBEKIEI, 6. SINPLEKI.

Montserrat Vilarrasa

ESTIGMAK SUNTSITZEN



AUTONOMIA ALDARRI

“Betidanik pentsatu izan dut garrantzi-tsua zela nire buruaren jabe egitea. Batez ere, etorkizunean, nire ama ez dagoenean, prozesu hori egina izateko. Horregatik 2012an erabaki nuen gurasoen etxetik ateratzea. Amak ez zuen argi ikusten hasieran, eta horregatik, beste neska batekin pisua konpartitu nuen iaz arte. Duela urtebete eman nuen bigarren urratsa eta orduz geroztik bakarrik bizi naiz. Astean hirutan datorkit fundazioko norbait etxera. Bakarrik bizitzea esperientzia ona izan da, asko ikasi dut. Eta ama orain oso harro dago nitaz”.

“Baztertuago sentitzen naiz Down sindromea izateagatik emakumea izateagatik baino”

Down Sindromearen Fundazio Katalaneko Giza Eskubideen Batzordeko kidea da Montserrat Vilarrasa (Montcada i Reixac, 1980). 2016az geroztik Bartzelonako Udaleko Desgaitasuna duten Pertsonen Udal Institutuko Errektore Kontseiluaren (IMPD) parte da; ezgaitasun intelektualaren ordezkaria da bertan.

SAIOA BALEZTENA JORDI BORRÀS

Ezgaitasuna duzuen pertsonen eskubideen aldeko aktibista zara. Lanaz harago, zeintzuk dira zure afizioak?

Kazetaritza maite dut. Fundazioak sustatzen duen *Éxit21* aldizkari-ko erredaktorea naiz. Bertan hainbat kazetaritza lan egiten ditugu: iritziak eta elkarrizketak. Etxean lantzen ditugu artikulak eta erredakzioan erabakitzen dugu publikatzeko moduan dauden edo landu behar diren. Horretaz aparte, fundazioaren giza eskubideen batzordean ere parte hartzen dut.

Zer deritzozu hedabideek ezgaitasun egoeran bizi zaretenon inguruan egiten duten jarraipenaz?

Niri ongi zaindu izan naute betidanik hedabideetan eta, zorionez, ez dut esperientzia txarrik izan. Baina egia da, komunikabideek sarri ezgaitasunaren egunean bakarrik hitz egiten dutela gutaz. *Exit21* aldizkariaren bitartez, adibidez, salatzen

ditugu kazetariak gu izendatzeko erabiltzen dituzten kontzeptuak: gaixorik gaudela, sufritzen dugula edo ezgaiak garela esaten baitute askotan, pertsonak garela aipatu gabe.

Adimen ezgaitasuna duten pertsonen eskubideen aldeko borrokak markatu du zure ibilbidea. Noiz eta nola erabaki zenuen horretan murgiltzea?

Down Sindromearen Fundazio Katalaneko giza eskubideen inguruan antolatutako zituen ikastaro batean izena eman nuen 2013an. Hortik aurrera hasi nintzen gure eskubideen aldeko borrokan, erabakirik hartu gabe, besterik gabe, egunerokoan gertatzen den bazterketaren kontra borrokatzeak indarra ematen zidalako. Egiten dudanarekin zoriontsu naiz, ezinbestekoa baita.

2016tik Bartzelonako Udaleko ezgaitasunaren kolektiboaren ordezkaria zara. Zer deritzozu esperientzia horretaz?



"NI NAIZ MUNDU MAILAN EZGAITASUN INTELEKTUALA IZANIK ARDURA PUBLIKOAK DITUEN EMAKUME BAKARRENETAKOA. GURI ERAGITEN DIGUTEN ERABAKIAK HARTZEN BADITUZTE, EZINBESTEKOA DA GUK ERABAKI HORIETAN PARTE HARTZEA".

Lau urte hauen ondotik pozik nago egingo diren Zuzendaritza Kontseiluan eta berriz aurkeztuko naiz. Pozik nago, nire lanari esker lortu dugulako lege berri bat ateratzea. Horren bitartez, ezin izango da hauteskunde hauetan, orain arte bezala, guraso edo tutore legalik aurkeztu. Ni bezala, ezgaitasuna duten pertsonak eskuratu ahal izango dute bakarrik kargua. Ezinbestekoa da ezgaitasuna dugunok halako karguetarako irisgarritasuna izatea.

Hain zuzen ere, Down sindromea duten biztanle anitzek ez bezala, erakunde publiko batean lan egiten ari zara zu. Zenbateraino da garrantzitsua logika hau aldatzea?

Ezinbestekoa da ezgaitasun intelektuala dugunok halako ardura hartzea. Hain zuzen ere, ni naiz mundu mailan ezgaitasun intelektuala izanik ardura publikoak dituen emakume bakarrenetakoa. Guri eragiten diguten erabakiak hartzen badituzte, ezinbestekoa da guk erabaki horietan parte hartzea.

2019ko ekainean New Yorken izan zinen, Nazio Batuen Erakundearen "Buruzagitza politiko eta publikoko karguetako ezgaitasuna duten emakumeen adierazpena" sinatzeko.

Kontua da Down Sindromearen Fundazio Katalanak urtero familien arteko topaketa batzuk antolatzen ditugula, eta urte batean NBEko Maria Soledad Cisternas Reyes gonbidatu genuen. *Éxit21* aldizkarirako elkarrizketatu nuen nik, eta ondoren proposatu zidan New Yorkera joatea. Zenbait herrialdetan eginkizun politikoak ditugun eta ezgaitasuna dugun hoguei emakume aukeratu gintuzten adierazpen hori egiteko.

Nola gogoratzen duzu esperientzia?

Oso polita izan zen. Turismoa egiteko aprobetxatu nuen, baina garrantzitsua azken eguna izan zen, NBEko areto handi batean elkartu nintzen mundu guztiko ezgaitasun fisikoa zuten emakume askorekin adierazpena sinatzeko. Ezgaitasun intelektuala zuen emakume bakarra ni nintzen...

Badago uste duenik ezgaitasun egoeran bizi zareten emakumeek diskriminazio bikoitza pairatzen duzuela. Ados al zaude?

Noski. Hala ere, ni baztertuago sentitu naiz Down izateagatik emakumea izateagatik baino. Adibidez, aste santuko opor batzuetan Vinarós-era joan ginen: erreserba egina genuen Internet bitartez, eta hara iritsi ginenean, kalean utzi gintuzten. Horretaz aparte, etxebizitza bilatzen nuenean ere, jabearekin gelditu nintzen pisua ikusteko eta berak ukatu zidan bisita, arrazoi berarengatik.

Zenbateraino hobetu da egoera zentzu horretan?

Tira, halako gauzak gertatzen direla kontutan hartuta, lan asko dago egiteko oraindik...

Amaitzeko, zeintzuk dira zure erronkak hemendik aurrera?

Orain arte bezala, gustuko dudana eta egiten dudana egiten jarraitzeko baliabideak izatea. Eta, era berean, egiten dudana hau ahalik eta gehien hedatzea, sare sozialetan zein hedabideetan. ●



BERANDUEGI
KRONIKA SERIOSA EGITEKO



BIDALI ZURE HARRIKADAK: BERANDUEGI@ARGIA.EUS

Masturbazioa? Higienea? Zientzialarien azalpenak ez datoz bat komuneko paperaren kontsumo neurrigabearen aferan



Koronabirusaren krisia dela-eta, komuneko papera agortzen hasi da supermerkatuetan eta fenomenoak eztabaida sutua eragin du zientzialarien artean. Zergatik gertatu da hau jendeak apokaliptisia gertu dagoela uste duenean? Garbiñe Segura adituaren ustez, garrantzitsua da egoera larrienetan ere gorputz atal guztiak ondo garbituta edukitzea: "Horrek gorputzeko atal guzti-guztiak esan nahi du, ulertzen?". Baiezko erantzuna jaso arren, zehaztu nahi izan du: "Uzkia ere garbi eduki behar da, beti, bai-


ta egoera larria denean ere". Bestelako iritzia du Jon Kanpaitegi EHUko soziologia irakasleak. Bere ustez, etxean konfinatuta egoteak gizon zuri heterosexuaren artean masturbaziozko lerratzeko progresioa ekarriko du eta horri aurre egiteko prestatzen ari dira familiak. Tesi hau konfirmatuz, "nire umeak etxeko toallak nazkagarri utziko dizkit bestela" esplikatu dio emakume batek Abadiñoko gure korrespontsalari Eroskiko aparkalekuan, autoa komuneko paper paketez gainezkatzen zuen bitartean. ●

SAREAN ARRANTZATUA

Elkartasuna da bide bakarra



Europak neurriak hartu ditu



666€
BIDARRETA GASTIAK BARRA



OPARITARAKO PAPEREAN BILDUTA
JASOTZEKO AUKERA ERE ESKAINTZEN DUTE.

Koronabirusa autokutsatzen hasi dira hainbat guraso familatik ere bakartzeko

Etxean 24 orduz bakaturik, elkar hiltzea helburu duten seme-alabekin egun osoa, kirolak gabe, tabernetara ezin joan, kaka egin ostean ipurtzuloa garbitzeko paper zentimetro bakoitza mugaraino zukutu beharra... 26 urterekin Santiago Bidea egin edota asteburuan karabana hartu eta Luz Ardidenera bidaiatzeagatik euren burua abenturaz-

letzat zeukan guraso askori jasangaitza egin zaio egoera. Konponbidea Ebay-n aurkitu dute koronabirusaz kutsatutako mukizapiak norbaitek salgai jarri dituztenetik. "Zintz egin, Osasunbideko telefonora deitu eta ale! Izorratuta, futbolarik gabe, bakarrik, baina pozik", idatzi du artikulua iruzkinetan lehen erabiltzaileak. ●

berria bertso plaza

Apirilak 25, larunbata, 18:00

ASTIGARRAGA

Oialume Biltokian

Sarrerak:

10 € - BERRIAlagunek **8 €**

berria.eus/berrialaguna/ekitaldiak

Bertsolariak:

Maialen Lujanbio

Alaia Martin

Beñat Gaztelumendi

Uxue Alberdi

Miren Artetxe

Maidar Arregi

Gai jartzailea:

Amaia Agirre



Antolatzailea:

berria

Laguntzailea:

**oia
lu
me**
biltokia

AZOKA 2020

